

EUSKARA
LA LANGUE BASQUE


01

Iván Igartua – Xabier Zabaltza

BASQUE.



ETXEPARE
EUSKAL
INSTITUTUA



EUSKARA
LA LANGUE BASQUE

Iván Igartua - Xabier Zabaltza

BASQUE.

1
Euskara
La langue basque

2
Literatura
La littérature

3
Musika klasikoa
La musique classique

4
Euskar kantagintza: pop, rock, folk
La chanson basque : pop, rock, folk

5
Artea
L'art

6
Zinema
Le cinéma

7
Arkitektura eta diseinua
L'architecture et le design

8
Euskar dantza
La danse basque

9
Bertsolaritza
Le bertsolarisme

10
Tradizioak
Les traditions

11
Sukaldaritza
La cuisine

12
Antzerkia
Le théâtre

Etxepare Euskal Institutua sortutako bilduma honek hamabi kultura-adierazpide bildu ditu. Guztia kate bakarraren katebegiak dira, hizkuntza berak, Iurralde komunak eta denbora-mugarri berberekin zeharkatzen dituztelako. Kulturaren eskutik, euskararen Iurraldean tradizioa eta abangoardia nola uztartu diren jasoko duzu. Kulturaren leihotik, bertakoaren eta kanpokoaren topalekua erakutsiko dizugu. Kulturaren taupadatik, nondik gatozen, non gauden eta nora goazen jakiteko aukera izango duzu. Liburu sorta hau abiapuntu bat da, zugan jakin-mina eragin eta euskar kultura sakonago ezagutzeko gogoa piztea du helburu.

Cette collection créée par l’Institut basque Etxepare réunit douze disciplines culturelles. Elles sont toutes les maillons d’une même chaîne, car elles partagent la même langue, le même territoire, et la même histoire. À travers notre culture, nous vous invitons à être témoin de la fusion entre tradition et innovation, du mélange du local et de l’étranger dans le territoire de la langue basque. Nous vous invitons à découvrir d’où nous venons, où nous en sommes, et vers où nous allons. Cette collection est un point de départ destiné à éveiller votre curiosité et à susciter le désir de mieux connaître la culture basque.

EUSKARA LA LANGUE BASQUE

Iván Igartua – Xabier Zabaltza

08	Aitzinsolasa	Introduction
14	Hizkuntzaren egitura	Structure de la langue
30	Hizkuntzaren bilakaera	Évolution de la langue
36	Euskalkien aniztasuna	Diversité dialectale
40	Hizkuntzaren jatorria eta ideiak haren ahaideez	Origines de la langue et théories sur ses parentés avec d’autres langues
48	Euskararen muga historikoak	Frontières historiques de la langue basque
56	Euskararen iraupenaren zergatikoak	Raisons de la survivance de l’ <i>euskara</i>
60	Foruak eta euskara (XVI-XIX. mendeak): foru erakundeak eta apologistak	Coutumes et langue basque (XVIe-XIXe siècles) : institutions forales et apologistes
68	Euskal Pizkundea	‘Euskal Pizkundea’
72	XX. eta XXI. mendeak	XXe et XXIe siècles
80	Eranskina: euskarazko liburugintza (1545-2018)	Annexe : production bibliographique en <i>euskara</i> (1545-2018)
82	Bibliografia	Bibliographie



Nola lortu du Mendebaleko Europako berezko hizkuntzen artean indoeuroparra ez den bakarrak bere lekua hartzea XXI. mendean? Zertan datza euskal kultura gaur egun eta zertan bereizten da besteengandik? Zer presentzia merezi du nazioartean?

Liburu hauen bidez, Etxepare Euskal Institutuak erantzun batzuk proposatu nahi ditu, beste kultura eta identitate batzuei eskua luzatzeko asmoz. Elkar ezagutzea baita elkar estimatzeko eta ulertzeko modu bakarra. Ongi etorri.

Comment la seule langue indigène d'Europe occidentale qui ne soit pas d'origine indo-européenne a-t-elle réussi à prendre sa place au XXIe siècle ? Qu'est-ce que la culture basque aujourd'hui, et qu'est-ce qui la distingue des autres cultures ? Quelle présence internationale mérite-t-elle ?

À travers les livres de cette collection, l'Institut basque Etxepare souhaite proposer des réponses, afin de tendre la main à d'autres cultures et identités. Car se connaître mutuellement est le seul moyen de nous apprécier et de nous comprendre. Ongi etorri.



Euskara Pirinioen mendebaleko bazterrean hitz egiten da, Espainia eta Frantziaren arteko mugaz bi aldeetan. Spainian, Euskadiko Autonomia Erkidegoan (hots, Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko probintzietan) eta Nafarroako Foru Komunitatean (probintzia ere baden horretan) mintzatzen da, eskualdeen arabera hizkuntzaren zabalgunean diferentzia handiak daudela. Frantzian, bere aldetik, Lapurdiko, Baxenabarreko eta Zuberoako antzinako probintziak biltzen dituen Euskal Hirigune Elkargoan eta Zuberoaren ondoko Biarnoko haran batzueta hitz egiten da. Zazpi probintzia edo herrialde horiei *Euskal Herria* deritze euskaraz.

Azken datuen arabera, ia 900.000 pertsona gai dira Euskal Herri osoan euskaraz mintzatzeko, ez maila berean, baina. Euskadin, adibidez, non gaztelaniarekin batera ofiziala baita, euskaraz dakitela diotenak gutxi gorabehera 2.188.017 bizilagunen ia % 34 dira (hots, 740.000 pertsona),

1. Euskal Herria
Europen.

1. Le Pays Basque en Europe.

La langue basque (en basque *euskera* ou *euskara*) est parlée des deux côtés de l’extrémité occidentale des Pyrénées, dans des territoires appartenant à la France et à l’Espagne. En Espagne, la langue est pratiquée dans la Communauté Autonome du Pays Basque ou *Euskadi* – composée des provinces d’Alava (Araba en basque), du Guipuscoa (Gipuzkoa) et de Biscaye (Bizkaia) –, ainsi que dans la Communauté Forale, également province, de Navarre (Nafarroa), avec d’importantes différences d’implantation selon les zones. En France, elle est parlée dans la Communauté d’Agglomération Pays Basque, qui réunit les anciennes provinces du Labourd (Lapurdi), de Basse-Navarre (Baxenabarre) et de Soule (Zuberoa), ainsi que dans certaines vallées du Béarn limitrophes de la Soule. En basque, l’ensemble de ces sept provinces est dénommé *Euskal Herria*. Il s’agit du territoire auquel se réfère cet ouvrage lorsqu’il est question de *Pays Basque*.

Selon les dernières estimations, près de 900 000 personnes connaissent la langue basque au Pays Basque, à différents degrés. En *Euskadi*, par exemple, où la langue basque est officielle au même titre que l’espagnol, près de 34 % de la population (740 000 personnes sur les 2 188 017 habitants de la Communauté Autonome) déclarent parler basque, mais seuls 20,5 % d’entre eux l’utilisent régulièrement (soit environ 450 000 personnes). Au Pays Basque français, où l’*euskara* ne bénéficie d’aucune reconnaissance administrative, les baskophones représentent un peu plus d’un cinquième de sa population de 309 673 habitants (soit environ 65 000 personnes), et en Navarre, où la langue n’est officielle que dans le nord du territoire, près de 13 % des habitants sont baskophones (quelque 85 000 personnes sur 653 846 habitants). Les locuteurs basques qui s’expriment habituellement en basque constituent 8,1 % de la population du Pays Basque français (25 000 personnes environ), contre 6,6 % en Navarre (près de 45 000 personnes). À l’heure actuelle, il n’existe quasiment plus de baskophones monolingues : les Basques qui ignorent l’espagnol ou le français n’atteignent pas 1 % de la population totale.

L’*euskara* est une langue génétiquement isolée : autrement dit, elle n’appartient à aucune famille linguistique connue. Son cas n’est ni unique, ni, par conséquent, particulièrement remarquable : il existe dans le monde plus d’une centaine de langues isolées, parmi lesquelles on peut citer l’ainou au nord du Japon, le bourouchaski au Pakistan, le kousounda au Népal, le zuni au Nouveau Mexique, le nihali ou nahali en Inde, le sandawé en Tanzanie, le kutenai au Canada et dans les États de l’Idaho et du Montana (États-Unis), et le coréen. Comme cela se produit fréquemment avec les langues inclassables dans un tronc linguistique déterminé, les hypothèses les plus pittoresques ont été avancées au cours de l’histoire à propos de l’origine de la langue basque.


Les premiers textes écrits en *euskara* dont la longueur est notable datent du XVI^e siècle. Auparavant, on a retrouvé de brèves gloses (datant des Xe-XI^e siècles), des fragments de chants épiques, des commentaires, des expressions détachées et des lexiques intégrés dans des textes rédigés dans d’autres langues. En 1545, Bernard D’Etchepare publie son *Linguae Vasconum Primitiae*, le premier livre en langue basque, tandis que quelques années plus tard, en 1571, Jean de Liçarrague rend publique sa traduction

baina erabili ohi dutenak % 20,5 besterik ez (450.000 pertsona). Ipar Euskal Herrian euskarak ez du inolako onarpen administratiborik eta euskaldunak 309.673 bizilagunen bosten bat baino gehixeago dira (65.000 pertsona inguru). Nafarroan bakarrik iparraldean da ofiziala eta 653.846 bizilagunen ia % 13k hitz egiten dute (85.000 bat pertsonak). Euskara erabili ohi dutenak populazioaren % 8,1 dira Ipar Euskal Herrian (25.000 bat pertsona) eta % 6,6 Nafarroan (45.000 bat). Gaur egun, ia-ia ez dago euskaldun elebakarrik, gaztelaniaz edo frantsesez ez dakiten euskaldunak euskal heritarren % 1 baino gutxiago dira eta.

Euskara genetikoki isolaturiko hizkuntza bat da, alegia, ez da hizkuntza familia ezagun bateko kidea. Haren kasua ez da bakarra, ez eta, zer esanik ez, bereziki deigarria ere. Munduan ehun bat hizkuntza isolatu baino gehiago daude. Haien artean honako hauek aipatzekoak dira: ainua, Japoniaren iparraldean; burushaskia, Pakistanen; kusunda, Nepalen; zunia, Mexiko Berrian; nihali edo nahalia, Indian; sandawea, Tanzanian; kutenaia, Kanadan eta Estatu Batuetako Idaho eta Montana estatuetan, eta koreera. Sailkatzerik ez daukaten hizkuntzak gertatu ohi den bezala, euskararen jatorriaz ere hipotesirik bitxienak garatu izan dira historian zehar.

Euskaraz idatziriko lehen testu luzeak XVI. mendekoak dira. Lehenago, glosa laburak agertu dira (X-XI. mendeetakoak), kantu batzuetako pasarteak, iruzkinak, adierazpen solteak eta beste hizkuntza batzuetan idatziriko testuetan sarturiko hiztegiak. 1545ean, Bernart Etxeparek *Linguae Vasconum Primitiae* argitaratu zuen, euskarazko lehen liburua. Urte batzuk geroago, 1571n, Joanes Leizarragak Testamentu Berriari egin zion euskarazko itzulpena kaleratu zuen. XVI. mendeko beste testu bat (1567-1602koa) berriki aurkitu da: Joan Perez Lazarragakoren narrazio eta olerkiak biltzen dituena, hain zuzen ere. Garai hartaz geroztik, euskarak, euskalki batean edo bestean, tradizio literario etengabea landu du. Azken aldian, hizkuntza literario edo estandarra (*euskara batua*) sortzeko prozesuagatik beragatik abiadura bizia hartu du. Euskaltzaindiak 1968an ezarri zituen euskara batuaren oinarriak. Hizkuntza estandardizatua administrazioan, hezkuntza sisteman, hedabideetan eta, oro har, literaturan erabiltzen da gaur egun. Hizkuntzaren batasuna funtsezkoa da edozein tradiziota kultura garatzeko eta giltzarri bat izan da euskara berreskuratzeko prozesuan. Datu bat aski izan daiteke hori frogatzeko: 1968an 93 liburu argitaratu ziren euskaraz eta 2018an, 2.138.

2. Bernart Etxeparen liburuaren azala (1545).



2. Couverture du livre de Bernart D'Etchepare (1545).

en langue basque du Nouveau Testament. On a très récemment découvert un autre texte du XVI^e siècle (datant de la période 1567-1602). Il s'agit d'un recueil de récits et poèmes de Juan Pérez de Lazarraga. Depuis cette époque, la langue basque, dans ses différentes variantes dialectales, a connu une tradition littéraire ininterrompue, indéniablement soutenue aux temps modernes par le processus d'unification de la langue littéraire ou standard (*euskara batua*) dont les bases furent établies par l'Académie de la Langue Basque – Euskaltzaindia, en 1968. La langue standardisée est utilisée actuellement dans l'administration, le système éducatif, les médias et la littérature en général. Cette unification de la langue, indispensable au développement culturel, quelle que soit la tradition, a constitué la clef de voûte du processus de revitalisation de l'*euskara*. Il suffit, pour s'en convaincre, de citer en exemple les 93 ouvrages publiés en langue basque en 1968, contre 2 138 en 2018.

Hizkuntzaren egitura

Orokorrean, euskara hizkuntza nagusiki aglutinatzaile edo eranskaria da morfologiaren ikuspegitik eta tipologia ergatibokoa edo aktibokoa (deskribatzailaren ikuspegi teorikoaren arabera). Hitzen oinarrizko ordenak subjektua objektuaren aurretik jartzen du eta objektua aditzaren aurretik (SOV ordena). Euskararen egitura fonologikoa ez da sobera nahasia. Azken kontu honetatik hasiko gara.

1. EZAU GARRI FONOLOGIKOAK

Euskarak bost bokal ditu: /a/, /e/, /i/, /o/, /u/ (horiei zubereraren, ekialdeko euskalkietako baten, /ü/ bokala gehitu behar zaie). Munduko hizkuntzen artean hedatuena dagoen tipo bokalikoa da. Beraz, euskara batez bestekoaren barruan dago. Diptongoekin ez da berdin gertatzen: euskarak bost dauzka (goitik beherakoak deritzenak), /ai/, /ei/, /oi/, /au/ eta /eu/. Horrek nolabaiteko konplexutasuna ematen dio bokalismoari, eskuarki gaztelaniarenaren oso antzekoa denari (ekialdean /ui/ diptongoa ere bada, baina haren erabilera mugatua da oso).

Kontsonanteei dagokienez, euskarak, barriate estandarrean, 25 unitate dauzka. Sistemaren oinarriak hauexek dira: alde batetik, ahostun/ahoskabe oposizioa (kontsonante ahoskabeak alde batean eta ahostunak bestean, baina bakarrik herskarien artean) eta, bestetik, artikulazio moduen zatiketa hirukuna: badaude kontsonante herskariak (/p/, /t/, /k/, /b/, /d/, /g/), frikariak (/s/, /z/, /x/, /j/) eta afrikatuak (/tz/, /ts/, /tx/). Ozenek osatzen dute kontsonantismoa (sudurkariek eta urkariek, dardarkari bakunen eta anizkunen artean oposizioa dagoela) eta, ekialdeko eskualde batzuetan, aspirazioak (/h/), frikari glotala berau. Oro har, sistema kontsonantikoak ez dauka ezaugarri bereziki deigarriak, salbu eta, agian, fonema frikari eta afrikatu kopuru handi samarrean eta, bereziki, horien azpimultzoan nabarmentzekoa den artikulazio bizkarkariaren (/z/, /tz/) eta apikariaren (/s/, /ts/) arteko kontrastean.

Euskararen azentua intentsiboa izan ohi da. Ezin da errazki azaldu zertain datzan, zubereraz izan ezik, euskalki horretan azentuazioa finkoa baita, hitzko azken aurreko silaban. Beste euskalkietan, arau hauetan izan ohi dute indarra: a) hitzaren erroa monosilabikoa denean, hitzak berak silaba gehiago izanik ere, azentua lehen silaban doa: *lúrra* < *lurr-a*, *lúrretan* < *lurr-etan*; b) erroa bisilabikoa bada eta bokalez bukatzen bada, kasu horretan ere lehen silaban doa azentua: *méndi*, *áte*; c) beste kasuetan, silaba anitzetako hitzetan, azentua bigarren silaban doa, ezkerretik eskuinera kontatuta (*gizón*, *gizóna*) eta bigarren mailako azentu bat gehitu dezakete hitzaren bukaeran, hitzak lau silaba edo gehiago dituenean (*gizónarentzàt*). Mendebareko zenbait euskalkitan (hala Bizkaian nola Gipuzkoan), melodía edo tonu sistemak erabiltzen

Structure de la langue

Dans les grandes lignes, la morphologie de la langue basque est majoritairement agglutinante, ergative ou active (selon la vision théorique de celui qui en fait la description), avec un ordre des mots basique dans lequel le sujet précède l'objet et le verbe (ordre SOV), et avec une structure phonologique pas excessivement complexe. Commençons par ce dernier point.

1. CARACTÉRISTIQUES PHONOLOGIQUES

L'euskara compte cinq voyelles (auxquelles s'ajoute la voyelle /ü/ dans le dialecte souletin, l'une de ses variantes orientales) : /a/, /e/, /i/, /o/, /u/. Il s'agit du système vocalique le plus répandu dans le monde, ce qui place la langue basque, de ce point de vue, dans la moyenne. Elle s'en écarte, en revanche, avec ses diptongues : l'euskara en compte cinq (également appelées descendantes) - /ai/, /ei/, /oi/, /au/ et /eu/ -, ce qui apporte un certain degré de complexité au vocalisme, très semblable à celui de l'espagnol (dans certaines variantes orientales, on trouve également la diptongue, très marginale, /ui/).

Les consonnes sont au nombre de 25 dans la version standardisée de la langue basque. La base du système repose sur une opposition de sonorités (consonnes sourdes vs. sonores, mais seulement parmi les consonnes occlusives) et sur une division tripartite des types d'articulation : consonnes occlusives (/p/, /t/, /k/, /b/, /d/, /g/), fricatives (/s/, /z/, /x/, /j/) et affriquées (/tz/, /ts/, /tx/). Le consonantisme est complété par les consonnes appelées sonantes (nasales et liquides, avec une opposition entre vibrantes simples et vibrantes multiples) et, dans certaines régions orientales, par l'aspiration (/h/), qui est une consonne fricative glottale. Globalement, ce système consonantique ne présente pas de caractéristiques particulièrement remarquables, à l'exception peut-être du nombre relativement élevé de phonèmes fricatifs et affriqués et, en particulier, du contraste entre les articulations dorsale (/z/, /tz/) et apicale (/s/, /ts/) dans ce sous-ensemble de phonèmes.

L'accent de l'euskara, généralement intensif, est difficile à décrire simplement, à l'exception de celui dialecte souletin, dans lequel l'accentuation est fixe et porte sur l'avant-dernière syllabe du mot. Les autres dialectes fonctionnent en général selon trois règles : a) quand la racine du mot est monosyllabique, même si le mot compte davantage de syllabes, l'accent se trouve sur la première : *lúrra* « la terre » < *lurr-a*, *lúrretan* « dans les terres » < *lurr-etan* ; b) quand la racine est bisyllabique et se termine par une voyelle, l'accent se trouve également sur la première syllabe : *méndi* « montagne », *áte* « porte » ; c) dans tous les autres cas, dans les mots polysyllabiques, l'accent porte sur la deuxième des syllabes, en comptant de gauche à droite (*gizón* « homme », *gizóna* « l'homme »), et quand le mot comporte quatre syllabes ou plus, un second accent peut venir porter sur la terminaison du mot

dira, tonu altuaren (H) eta baxuaren (L) arteko oinarrizko bereizketa egiten dutenak. Goizuetako hizkeran (ipar-mendebaleko nafarrera garaia), bestalde, azentu kontrastiboa tonu kontrastiboarekin konbinatzen da, ikerlan batzuen arabera.

2. EZAUGARRI MORFOLOGIKOAK

Egitura morfologikoaren aldetik, euskara hizkuntza nagusiki aglutinatzaleen barruan dago. Hizkuntza talde horretan, morfemen arteko mugak argi eta garbi azaltzen dira eta segmentu morfologikoetan esanahi bana adierazten da. Ezagari hori, morfemen arteko bereizketa gardena, euskarari aplikatu dakiote eskuarki. Hala ere, zenbait alor gramatikaletan, osagai morfologikoen arteko zatiketa eta esanahia duten unitateekiko lotura ez dira hain begi bistakoak.

2.1. IZEN MORFOLOGIA

Euskara genero gramatikalik gabeko hizkuntza da. Haren ezagarietako bat da izenen flexio aberatsa: substantiboak, izenordainak eta adjektiboak kasuetan deklinatzen dira. Kasu horiek, deskripzioen arabera, 14 edo 15 dira (gehiago ere bai, batzuetan). Egia esan, zortzi flexio-forma daude marka (hizki edo klitiko) bakuna dutenak. Horien artean hauexek: absolutiboa (*etxea*, singularrean), ergatiboa (*etxeak*), datiboa (*etxeari*), genitiboa (*etxearen*), instrumental (*etxeaz*), lokatibo edo inesiboa (*etxean*), ablatiboa (*etxetik*) eta adlatiboa (*etxera*). Absolutiboen ukoak partitiboaren erabilera dakar berekin (*etxerik ez du*). Horren funtzionamendua paradigma numeral mugagabera mugatua dago eta, batzuetan, ez da sisteman egoteko eskubide osoa duen kasutzat hartzen (hizkuntzalari zenbaitek 'sasi-kasu' deitzen diote). Antzeko zerbait gertatzen da lokatibo adnominalarekin (*etxeko*) eta translatiboarekin (*etxetzat*): haien integrazio maila izen paradigmantza nahiko badezpadakoa da.

Marka bakuna duten kasuei konposatuak gehitzentz zaizkie. Horiek sortzeko, genitiboaren edo adlatiboaren forma ondoren doan beste elementu batekin konbinatzen da. Kasu konposatu horiek hauexek dira: komitatiboa (*etxearekin*), direkzionala (*etxerantz*), teliko edo terminatiboa (*etxeraino*), benefaktiboa (*etxearentzat*), kausala (*etxearengatik*) eta destinatiboa (*etxerako*). Kasu horietan guztietan, bereizten ahal dira, alde batetik, oinarrizko marka (genitibo edo adlatiboa) eta, bestetik, berariazko markatzalea. Adibidez, *etxe-a-ren-tzat* (artikulari dagokion -a- bat barne) edo *etxe-ra-ino*. Ikuspegi historikotik, zenbait formaren kasuan, gaur egun duten itxura bi marka batzearen ondorio da, aurreko adibideetan bezala, edo flexio-paradigmaz kanpoko osagaiei esker gorpuztu da, kausalean edo, marka bakuna dutenen artean, lokatibo adnominalean ere gertatu bezala.

Deklinabidearen kasu lokaletan (lokatiboan, ablatiboan, adlatiboan eta azken honen oinarrian eratzen diren kasu konposatuetan) erreferentzia biziduna duten izenek atzizki osagarri bat erakusten dute (-ga(n)-), genitiboarekin konbinatuta ager daitekeena: ablatiboaren kasuan honako forma hauek konpara daitezke, *etxe-tik* eta *gizon-a-ren-gan-dik*, edo lokatiboaren kasuan beste hauek, *etxe-a-n* eta *gizon-a-ren-gan*.

(*gizónarentzàt* « pour l'homme »). Dans certaines variantes occidentales (en Biscaye comme en Guipuscoa), on note des systèmes mélodiques ou tonals, où on distingue le ton haut (H) et le ton bas (L). D'après différentes études, la variante de Goizueta (haut-navarrais nord-occidental) combine l'accent contrastif et le ton contrastif.

2. CARACTÉRISTIQUES MORPHOLOGIQUES

Par sa structure morphologique, l'euskara fait partie du groupe des langues essentiellement agglutinantes. Dans ce groupe, non seulement les frontières entre les morphèmes apparaissent nettement, mais chaque segment morphologique correspond à une seule signification. Cette séparation évidente entre morphèmes est une caractéristique globalement applicable à l'euskara. Toutefois, dans certains champs grammaticaux, la division entre les constituants morphologiques et le lien avec les unités signifiantes ne sont pas aussi évidents.

2.1. MORPHOLOGIE NOMINALE

La langue basque n'a pas de genre grammatical et se caractérise par une inflexion nominale riche : les substantifs, les pronoms et les adjectifs se déclinent par cas. Il en existe 14 ou 15 (voire davantage), bien que ce chiffre soit variable selon les différentes descriptions. En réalité, il est possible d'identifier un noyau de huit formes flexionnelles à marqueur simple (affixe ou clitique), parmi lesquels on trouve l'absolutif (au singulier, *etxea* « la maison »), l'ergatif (*etxeak*), le datif (*etxeari*), le génitif (*etxearen*), l'instrumental (*etxeaz*), le locatif ou inessif (*etxean*), l'ablatif (*etxetik*) et l'adlatif (*etxera*). La négation de l'absolutif entraîne l'usage du partitif (*etxerik ez du* « il/elle n'a pas de maison »), dont le fonctionnement se limite au paradigme numéral indéterminé et qui, en général, n'est pas considéré comme un cas figurant de plein droit dans le système (certains linguistes parlent de « pseudo-cas »). Le fonctionnement est similaire pour le locatif adnominal (*etxeko*) et le translatif (*etxetzat*), dont la place dans le paradigme flexionnel est tout aussi précaire.

À ce noyau de cas à formant simple viennent s'ajouter les cas composés, basés sur la combinaison du génitif ou de l'adlatif avec un autre marqueur placé après : ces cas composés sont le comitatif ou associatif (*etxearekin*), le directionnel (*etxerantz*), le terminatif (*etxeraino*), le bénéfactif (*etxearentzat*), le causatif (*etxearengatik*) et le destinatif (*etxerako*). Dans tous ces cas, on peut distinguer, d'une part, le formant de base (génitif ou adlatif), et d'autre part, le formant spécifique, comme dans *etxe-a-ren-tzat* « pour la maison » (avec un -a- correspondant à l'article) ou dans *etxe-ra-ino* « jusqu'à la maison ». Du point de vue historique, certaines de ces formes présentent une origine clairement secondaire, due à la réunion de deux marqueurs, comme dans les cas précédents, ou à l'incorporation d'éléments extérieurs au paradigme flexionnel, comme dans le causatif, ou même (parmi les formes simples) dans le locatif adnominal.

Dans les cas locaux de la déclinaison (locatif, ablatif, adlatif et les cas composés construits sur la base de ce dernier), les substantifs animés contiennent un suffixe additionnel (-ga(n)-), qui peut se trouver combiné au génitif : dans le cas de l'ablatif, on peut comparer les formes *etxe-tik* « depuis la maison » et *gizon-a-ren-gan-dik* « (en provenance) de l'homme », ou dans le cas du locatif, les formes *etxe-a-n* « dans la maison » et *gizon-a-ren-gan* « chez l'homme ».

Euskarazko deklinabide sistemak hiru forma edo paradigma talde dauzka: bat singularrako, beste bat pluralerako eta beste bat flexio mugagaberako, hots, artikulurik ez daukan eta, numero gramatikalari dagokionez, indiferentea den horretarako (ikus bedi lagin hau *liburu* substantiborako):

Kasua/ Numeroa	Singularra	Plurala	Mugagabea
Absolutiboa	<i>liburu-a-Ø</i>	<i>liburu-ak</i>	<i>liburu-Ø</i>
Ergatiboa	<i>liburu-a-k</i>	<i>liburu-e-k</i>	<i>liburu-k</i>
Datiboa	<i>liburu-a-ri</i>	<i>liburu-e-i</i>	<i>liburu-ri</i>
Genitiboa	<i>liburu-a-ren</i>	<i>liburu-e-n</i>	<i>liburu-ren</i>
Lokatiboa	<i>liburu-a-n</i>	<i>liburu-e-ta-n</i>	<i>liburu-tan</i>

Euskarazko deklinabidearen funtzionamenduaren funtsezko ezaugarri bat haren izaera sintagmatikoa da, alegia, funtziaren markatzailea (kasua) sintagma edo talde nominalaren azken osagaiari gehitzen zaio, ez osatzen duten guztiei: *liburu-an irakurri zuen*, *liburu har-tan irakurri zuen*, *liburu erosi berri-an irakurri zuen*. Berezitasun hori numeroaren adierazpenera ere zabaltzen da. Hurrengo adibideetan bezala, sintagmako azken kidea bakarrik agertzen da markaturik plural gisa: *liburu berri-ak*, *liburu berri hori-ek*. Ezaugarri horri talde-flexio deitu ohi zaio: haren baitan, funtzi markak klítikotzat jotzen dira (ez horrenbeste atzikitzat). Euskarazko deklinabidearen erabileraen beste bereizgarri bat, hizkuntza aglutinatzaleetan gertatu ohi dena, forma nominaletan desinentzien markak metatzeko aukera da (elipsiaren ondorio gisa): *lagun-a-ren-e-tik*, genitiboko *-ren-* marka eta ablatiboko *-tik* marka metaturik.


2.2. ADITZ MORFOLOGIA

Euskarazko aditzaren morfologia konplexuagoa da izenarena baino. Kategoria orokorrak ez ezik (tenpusa, aspektua, modua, numeroa eta pertsona), euskaraz forma sistema jori bat dago: aditz batzuetan (dozena bat, aditz laguntzaileak barne) forma analitiko edo perifrastikoak (*eramanen dut*), alde batetik, eta, bestetik, forma sintetikoak (*daramat*, *eraman aditz berekoa*) bereizten dira; horrez gain, konjugazio orokor bat dago, pluripertsonala deritzona, non aditzaren ekintzan diharduen edo parte harten duen bakoitzarentzat markak ageri baitira; eta gainera konjugazio alokutibo bat ere bada, formak modu batean edo bestean osatzerakoan solaskidearen sexu edo generoa kontuan hartzen duena.

Forma sintetikoaren bidez, aspektuaren esanahi progresiboa adierazten da, forma perifrastikoaren esanahi ohikoaren kontrakoa: *dator* alde batetik eta *etortzen da* bestetik, *darama* alde batetik, *eramanen du* bestetik (aditz estatiboetan, ordea, erlazio hori ez da gertatzen: *daki*, *dakusa*). Adibide hauetan ikus daitekeenez, forma perifrastikoaren aditz laguntzailea (*da/du*) aldatzen ahal da, eta aditzaren izaera semantikoaren arabera benetan aldatzen: aditza iragangaitzen taldeko bada (edo, hobe, aditurek «inakusatiboak» deitzen dieten horietako) laguntzaileak *izan-eko*

3. Joan Perez Lazarragakoren eskuizkribuaren zati bat (ca. 1567-1602).

3. Fragment du manuscrit (ca. 1567-1602) de Juan Pérez de Lazarraga.



Le système de la déclinaison en euskara contient trois groupes de formes ou paradigmes : un pour le singulier, un pour le pluriel et un troisième pour la flexion indéterminée, qui n'inclut pas d'article et qui est indifférente au nombre grammatical (voyez l'exemple suivant pour le substantif *liburu* « livre ») :



4

formak hartzen ditu. Aitzitik, aditza iragankorra bada edo iragangaitza baina aktiboa bada, laguntzalea **edun* paradigmatik hartzen da (forma hori ez dago dokumentatua, horregatik izartxo batekin markatzen da):

<i>izan</i>		<i>*edun</i>	
Orainaldia	Lehenaldia	Orainaldia	Lehenaldia
1. P. sg	<i>naiz</i>	<i>nintzen</i>	<i>dut</i>
2. P. sg	<i>zara</i>	<i>zinen</i>	<i>duzu</i>
3. P. sg	<i>da</i>	<i>zen</i>	<i>du</i>
1. P. pl.	<i>gara</i>	<i>ginen</i>	<i>dugu</i>
2. P. pl.	<i>zarete</i>	<i>zineten</i>	<i>duzue</i>
3. P. pl.	<i>dira</i>	<i>ziren</i>	<i>dute</i>

**edun*-etik datorren laguntzailearekin osaturiko aditz-multzoetako subjektuek ergatiboaren marka daukate (-k singularrean). Esan den bezala, ezaugarri hori egitura iragankorrei (*Anek liburua irakurri du*) ez ezik, esanahi aktiboko egitura iragangaitzek osaturiko azpitalde txiki bat ere badagokio euskara batuan (*Anek onto dantzatzen du, emanaldiak luze iraun du*). Horregatik, egile batek baino gehiagok pentsatzen du euskara batua (eta harekin batera euskalki asko) ez dela zehazki sistema ergatibo bat, kontzeptua ezaugarri morfologiko eta sintaktikoetatik abiaturik definitu ohi den moduan, egitura aktiboko hizkuntza bat baizik (*split-S language*).

4. Pedro Axular
(1556-1644), euskal
letren maisua.

Cas/ Nombre	Singulier	Pluriel	Indéterminé
Absolutif	<i>liburu-a-Ø</i>	<i>liburu-ak</i>	<i>liburu-Ø</i>
Ergatif	<i>liburu-a-k</i>	<i>liburu-e-k</i>	<i>liburu-k</i>
Datif	<i>liburu-a-ri</i>	<i>liburu-e-i</i>	<i>liburu-ri</i>
Génitif	<i>liburu-a-ren</i>	<i>liburu-e-n</i>	<i>liburu-ren</i>
Locatif	<i>liburu-a-n</i>	<i>liburu-e-ta-n</i>	<i>liburu-tan</i>

4. Pedro de Axular
(1556-1644), maître en
lettres basques.

Une caractéristique essentielle du comportement de la flexion nominale en euskara est son caractère syntagmatique. Autrement dit, la marque fonctionnelle (ou cas) s'ajoute seulement au dernier élément du syntagme ou groupe nominal, et non à tous ses composants : *liburu-an irakurri zuen* « il/elle le lut dans le livre », *liburu har-tan irakurri zuen* « il/elle le lut dans ce livre », *liburu erosi berri-an irakurri zuen* « il/elle le lut dans le livre acheté récemment ». Cette particularité s'applique également à l'expression du nombre pluriel : dans les exemples suivants, seul le dernier membre du syntagme est marqué au pluriel : *liburu berri-ak* « les nouveaux livres », *liburu berri hori-ek* « ces nouveaux livres ». Cette flexion groupée transforme les marqueurs fonctionnels en clitiques (et non en affixes). Un autre trait caractéristique de l'usage de la déclinaison basque, fréquent dans les langues à caractère agglutinant, est l'accumulation de marques désinentielles dans les formes nominales (comme résultat de l'ellipse) : *lagun-a-ren-e-tik* « en provenance de celui/celle de l'ami(e) », avec les formants *-ren-* du génitif et *-tik* de l'ablatif.

2.2. MORPHOLOGIE VERBALE

La morphologie verbale de la langue basque est plus complexe que la morphologie nominale. Outre les catégories générales comme le temps, l'aspect, le mode, le nombre et la personne, la langue basque comprend également un abondant système formel : on distingue dans certains verbes (une douzaine, auxiliaires compris), d'une part, des formes analytiques ou périphrastiques (*eramaten dut*, « j'apporte »), et d'autre part, des formes synthétiques (*daramat*, « je suis en train d'apporter »), du même verbe *eraman* « apporter ») ; de plus, il existe une conjugaison appelée pluripersonnelle, caractérisée par la présence de marques pour chacun des acteurs ou participants à l'action verbale, ainsi qu'une conjugaison allocutive qui tient compte du sexe ou genre de l'interlocuteur dans la configuration de ses formes.

Les formes synthétiques expriment la signification progressive de l'aspect, contrairement aux formes périphrastiques qui expriment un sens habituel : *dator* « il/elle est en train de venir » face à *etortzen da* « il/elle vient » ; *darama* « il/elle est en train d'apporter » face à *eramaten du* « il/elle apporte » (les verbes d'état ne connaissent pas cette distinction : *daki* « il/elle sait », *dakusa* « il/elle voit »). On observe dans ces exemples une variation du verbe auxiliaire des formes périphrastiques (*da/du*), en fonction du caractère sémantique du verbe : si le verbe appartient au groupe des intransitifs (ou plutôt, de ceux que les spécialistes appellent inaccusatifs), l'auxiliaire prend les formes de *izan* « être », tandis que si le verbe est transitif, ou bien intransitif mais actif,

Konjugazio edo aditz komunztadura pluripersonalak adizki bakar batean partaide batzuen erreferentzia biltzen ahal du: subjektuarena, osagarri zuzenarena (gehienetan, markatu gabe) eta zeharkako osagarriarena. *Darama* adizkia *daramakio* adizkiarekin alderatuz gero, berehala atzematen da ekintzako hirugarren partaideari, zeharkako osagaiarena egiten duenari, dagokion markatzaile morfologikoa. Ikus ditzagun beste adibide batzuk:

ekarri d-i-da-zu: laguntzaileko *d-* orainaldiaren adierazlea da, *-i-* artizki bat da, *-da-* singularreko lehen pertsonaren adierazlea eta *-zu* singularreko bigarren pertsonarena;

ekarri d-i-o-zu: laguntzaileko *d-* orainaldiaren adierazlea da, *-i-* artizki bat da, *-o-* singularreko hirugarren pertsonaren adierazlea eta *-zu* singularreko bigarren pertsonarena;

ekarri d-i-z-ki-gu-te: laguntzaileko *d-* orainaldiaren adierazlea da, *-i-* artizki bat da, *-z-* objektuaren pluralaren adierazlea, *-ki-* beste artizki bat (datibozko markarekin lotua, batzuetan ‘aplikatibo’ esaten zaio), *gu-* pluraleko lehen pertsonaren adierazlea eta *-te* pluraleko hirugarren pertsonarena;

ekarri z-i-z-ki-gu-te-n: laguntzaileko *z-* lehenaldiaren adierazlea da, *-i-* artizki bat da, *-z-* objektuaren pluralaren adierazlea, *-ki-* beste artizki bat (datibozko markarekin lotua, aurreko forman bezala), *-gu-* pluraleko lehen pertsonaren adierazlea, *-te-* pluraleko hirugarren pertsonarena eta *-n* lehenaldiaren marka da.

Adizkiak, bereziki konjugazio pluripersonalaren barruan, oso modu ikusgarrian zaitzen ahal dira, adibide hauek frogatu bezala (legiazko kasuak dira, baina gutxi erabiliak): *ziezazkiguketen*, *z-iezaz-ki-gu-ke-te-n* morfemetan zatitua, edo *generamazkionan* (emakume bati hitz egiten zaionean), *ge-ne-ram(a)-z-ki-o-na-n* morfemetan zatitua.

Azkenik, konjugazio alokutiboak solaskidearen generoaren arabera bereizten diren adizki-paradigmak biltzen ditu. Adizki horiek orokorrean buruz diferenteak dira, ez bakarrik hizlariak espresuki bere solaskidea aipatzen duenean *ikusi duk* (mask.), *ikusi dun* (fem.), hori beste aditz pertsona bati bailegokioke, baizik eta solaskideak ekintzan parte hartzen ez duenean ere bai (hemen datza, egiatan, inflexio alokutiboa): *liburu hau irakurri diat* (gizon bati hitz egiten zaionean), *liburu hau irakurri dinat* (emakume bati hitz egiten zaionean); adizki markatu gabea, solasaldiaren erreferentziarik egiten ez duena, *liburu hau irakurri dut* esaldia da, kontu horretan izan ezik aurrekoen baliokidea dena. Ez omen dago munduan solaskidearen generoaren araberako bereizketak egiten dituen hizkuntza askorik: orain arte aipatu eta ikertu diren kasuak pumea (Venezuela), nambikwara (Brasil), mandana (Ipar Amerika) eta beya (Ipar-Ekialdeko Afrika, kuxtarra) izeneko hizkuntzei dagozkie.

Euskal aditz-forma alokutiboen erabilera, historian zehar gainbehera izan duena, harreman eta egoera jakin batzuetara mugatua dago: erabiltzen den barietateetan, inflexio alokutiboa arrunta da anai-arreben artean eta adin bertsuko lagun minen artean, ohikoagoa, dena den, gizonezkoen artean emakumezkoen artean eta harreman mistoetan baino. Bestelako egoeretan forma alokutiboen erabilera urria da, edo ez da gertatzen.

l’auxiliaire correspondant provient du paradigme de **edun* « avoir » (forme non attestée, d’où la présence d’un astérisque) :

	<i>izan</i>		<i>*edun</i>	
	Présent	Passé	Présent	Passé
1ère pers. sing.	<i>naiz</i>	<i>nintzen</i>	<i>dut</i>	<i>nuen</i>
2e pers. sing.	<i>zara</i>	<i>zinen</i>	<i>duzu</i>	<i>zuen</i>
3e pers. sing.	<i>da</i>	<i>zen</i>	<i>du</i>	<i>zuen</i>
1ère pers. pl.	<i>gara</i>	<i>ginen</i>	<i>dugu</i>	<i>genuen</i>
2e pers. pl.	<i>zarete</i>	<i>zineten</i>	<i>duzue</i>	<i>zenuten</i>
3e pers. pl.	<i>dira</i>	<i>ziren</i>	<i>dute</i>	<i>zuten</i>

Les sujets des complexes verbaux avec un auxiliaire provenant de **edun* présentent la marque de l’ergatif (-*k* au singulier). Comme cela a été indiqué, ce trait n’est pas exclusivement réservé aux structures transitives comme *Anek liburua irakurri du* « Ane a lu le livre », mais s’étend également, dans la variante standard de la langue, à un petit sous-groupe de structures intransitives ayant une sémantique active : *Anek ondo dantzatzen du* « Ane danse bien », *emanaldiak luze iraun du* « la représentation a duré longtemps ». Pour cette raison, certains auteurs considèrent que l’euskara standard (comme beaucoup de ses dialectes) n’est pas à proprement parler un système ergatif, au sens où ce concept est généralement défini à partir de caractéristiques morphologiques et syntactiques, mais plutôt une langue à la structure active (*split-S language*).

La conjugaison ou concordance verbale pluripersonnelle peut faire référence à plusieurs participants dans une seule forme : le sujet, le complément direct (généralement non marqué) et le complément indirect. Quand on compare une forme comme *darama* « il/elle emporte (quelque chose) » avec *daramakio* « il/elle lui emporte (quelque chose) », on constate immédiatement la substance morphologique différente qu’entraîne l’ajout d’un troisième participant à l’action, qui agit comme complément indirect. Considérons d’autres exemples :

ekarri d-i-da-zu « vous me l’avez apporté(e) » : dans l’auxiliaire, *d-* indique le présent, *-i-* est un interfixe, *-da-* indique « me » et *-zu* « vous » ;

ekarri d-i-o-zu « vous lui avez apporté » : dans l’auxiliaire, *d-* indique le présent, *-i-* est un interfixe, *-o-* indique « à lui, à elle » et *-zu* « vous » ;

ekarri d-i-z-ki-gu-te « ils/elles nous les ont apporté(e)s » : dans l’auxiliaire, *d-* indique le présent, *-i-* est un interfixe, *-z-* indique le pluriel de l’objet, *-ki-* est un autre interfixe (en relation avec la marque du datif, parfois appelé « applicatif »), *-gu-* indique « nous » et *-te* indique « ils/elles » ;


ekarri z-i-zki-gu-te-n « ils nous les apportèrent » : dans l’auxiliaire, *z-* indique le passé, *-i-* est un interfixe, *-z-* indique le pluriel de l’objet, *-ki-* est un autre interfixe (en relation avec la marque du datif, comme dans la forme précédente), *-gu-* indique « nous », *-te* « ils/elles » et *-n* est la marque du passé.

Les formes verbales, en particulier dans la conjugaison pluripersonnelle, peuvent devenir extrêmement complexes, comme le montrent les formes suivantes (authentiques, bien que rarement utilisées) : *ziezazkiguketen* « ils/elles auraient pu nous les avoir »,

3. EZAGARRI SINTAKTIKOAK

Euskaraz, hitzen oinarrizko ordena SOV (Subjektua-Objektua-Aditza) izan ohi da, tipologia aktibo eta ergatiboko hizkuntzatan oso zabaldua dagoena. Hala ere, euskarak malgutasun sintaktiko nabarmena du. Esaldien mailako ordenarik ohikoena (*Maitek_(S) auto berria_(O) erosi du_(V)*) izenen eta postposizioen arteko harremanarekin bat dator (euskaraz ez dago preposiziorekin): *aulkiaaren atzean, iritzi horren aurka*. Gaztelaniatik harturiko preposizioak, euskarak onartu eta gero, beste postposizioak bezala portatzen dira: *iritzi horren kontra*. Izen sintagmaren eta haren genitibozko osagarriaren arteko ordena (*aitaren etxea*) bat dator tipologikoki hitzen oinarrizko ordenarekin. Gauza bera esan daiteke egitura konparatiboez: hauetan, konparazioaren bigarren osagaia adjektiboaren -hau dagokion graduan- aurretik agertzen da (*zu baino gazteagoa*). Adjektiboak, bestalde, izenen atzetik agertzen dira (*katu beltza*): ezaugarri hau beste egituren hurrenkeraren logikaren bat ez datorrela ematen du. Hala ere, kontuan izan behar da adjektiboen ordenaren eta hizkuntzen bestelako ezaugarri sintaktikoen arteko elkarrekikotasun argirik ez dela egoten.

Bestalde, menpeko esaldi erlatibodunak laguntzen duten izenaren aurretik joan ohi dira ([*erosi berri dudan*]_(Rel) *liburua*). Hala ere, hori ez da modu bakarra klausula erlatibodunak sortzeko: maila batzuetan *zeina* izenordaina erabiltzen da, erromantzearen egituraren antzera, hots, erlatiboa substantiboaren ondoren. Gaurdaino ia-ia iraun ez duten eraikunta zaharretan, erlatiboa erreferentearen atzetik ere bazihoan, hala nola: *monument ageri eztiradenak_(Rel) bezala zarete* (Leizarraga, 1571, Lukas XI, 44). Joskera hori oraingoarekin alderatzen ahal da (*ageri ez diren_(Rel) monumentuak bezala(koak) zarete*). Barne erlatiboko gisa azter litezke. Horrenbestez, euskarak izan litezkeen aukera tipologiko ia guztiak dauzka menpeko esaldi erlatiboa osatzeko.



6



7

5. Manuel de Larramendi (1690-1766).

6. *Dictionnaire trilingue de Larramendi* (1745)

7. Resurrección María de Azkue (1864-1951).

5. Manuel Larramendi (1690-1766).

6. Larramendiren *Hiztegi hirukoitza* (1745).

7. Resurrección María Azkue (1864-1951).



5

divisé morphologiquement en *z-ieza-z-ki-gu-ke-te-n* ; ou encore *generamazkionan* « nous les lui emportâmes (interlocutrice féminine) », avec la division morphologique suivante : *ge-ne-ram(a)-z-ki-o-na-n*.

Enfin, ladite conjugaison allocutive présente différentes formes de paradigmes selon le genre de l'interlocuteur. Ces formes diffèrent des formes plus générales, non seulement quand l'orateur mentionne expressément son interlocuteur (*ikusi duk* « tu as vu (masculin) », *ikusi dun* « tu as vu (féminin) » (ce qui pourrait tout aussi bien faire référence à une personne verbale distincte), mais aussi dans des constructions où l'interlocuteur ne participe pas à l'action (il s'agit de la flexion allocutive au sens strict) : *liburu hau irakurri diat* « j'ai lu ce livre (interlocuteur masculin) », *liburu hau irakurri dinat* « j'ai lu ce livre (interlocutrice féminine) » ; on trouve la forme non marquée, sans référence à l'interlocuteur, dans la proposition (équivalente, sauf sur ce point, aux précédentes) *liburu hau irakurri dut* « j'ai lu ce livre ». Il semblerait que peu de langues dans le monde présentent une différenciation similaire en fonction du genre de l'interlocuteur. À ce jour, on trouve des mentions et des études concernant les cas des langues pumé (Venezuela), nambikwara (Brésil), mandan (Amérique du Nord) et beya (langue couchitique du nord-est de l'Afrique).

L'usage des formes allocutives de la langue basque, historiquement en déclin, est limité à des situations et des relations bien particulières : dans les variantes où elle est utilisée, la flexion allocutive est courante entre frères et entre amis intimes d'âge proche, et nettement plus courante entre hommes qu'entre femmes ou dans les relations mixtes. Son usage est rare et même pratiquement inexistant dans d'autres circonstances.


4. EZAGARRI LEXIKOAK

Euskararen lexikoa hizkuntzaz gutxien ezagutzen den kontuetako bat da eta horrek bide eman die balizko iritzi etimologiko guztiei, fundamenduarekin edo gabe. Zoritzarrez, azken hauek izan dira nagusi historian zehar. Badakigu euskara latinezko eta erromantzezko hitzez elikatu dela lotsarik gabe. Mailegu batzuk begi bistakoak dira (*bake* < lat. *pace(m)*, *ohore* < lat. *(h)onore(m)*, *liburu* < lat. *libru(m)*, *herren*, *herrenka* < esp. *renero*, *rengó*), baina beste batzuk ez hainbeste (*aizkora* < lat. *asciola*, *begiratu* < lat. *vigilare*, *biao* < lat. *meridianu(m)*, *aitortu* < aragoiera *zaharreko aytorgar*). Askoz gutxiago izanik ere, litekeena da antzinako hizkuntza zeltetatik harturiko lexikoa ere izatea (*mando*, *gori*, *maite*, *agian* *izokin*, baina azken hitz horren jatorria latin berantiarreko *esocina* izan daiteke, Asturietako *esguín* ‘izokin gaztea’ kide izan dezakeena) eta akaso germaniar hizkuntzetatik ere bai (*urki*, esaterako). Arabieratik harturiko



8. Akitaniako inskripzioa.

9. Bonaparteren mapa (1863).



3. CARACTÉRISTIQUES SYNTACTIQUES

L'ordre basique des mots en *euskara* suit généralement le schéma SOV (Sujet-Objet-Verbe), très répandu dans les langues de typologie active et ergative, même s'il s'avère que la langue basque dispose d'une remarquable flexibilité syntaxique. L'ordre le plus courant dans les propositions (*Maitek_(S)* *auto berria_(O)* *erosi du_(V)* « Maite a acheté une nouvelle voiture ») correspond à la relation qui existe entre les noms et les postpositions (il n'existe pas de prépositions en *euskara*) : *aulkiaren atzean* « derrière la chaise », *iritzi horren aurka* « contre cette opinion ». Même les prépositions que la langue basque a empruntées à l'espagnol se comportent, une fois adoptées, comme le reste des postpositions : *iritzi horren kontra* « contre cette opinion ». L'ordre relatif du noyau du syntagme nominal et son complément génitif (*aitaren etxea* « la maison du père »), tout comme celui qui caractérise les structures comparatives, où le deuxième terme de la comparaison précède l'adjectif au degré correspondant (*zu baino gazteagoa* « plus jeune que vous »), sont eux-mêmes cohérents avec l'ordre basique des mots. En revanche, les adjectifs suivent les noms (*katu beltza* « (le) chat noir »), ce qui peut sembler contradictoire avec les autres constructions. Il arrive pourtant que l'ordre des adjectifs ne soit pas clairement lié aux autres caractéristiques syntaxiques des langues.

Les propositions subordonnées relatives précèdent généralement le substantif qu'elles modifient (*[erosi berri dudan]_(Rel)* *liburua* « le livre que je viens d'acheter »). Toutefois, ce n'est pas la seule manière de construire les propositions relatives : dans certaines variantes, on utilise le pronom *zeina* « lequel/laquelle » dans une structure très similaire à celle de la langue romane, avec le pronom relatif placé après le nom, comme une postposition. Dans les constructions anciennes, qui n'ont pratiquement pas survécu jusqu'à nos jours, le relatif succédait aussi au référent, comme dans *monument ageri eztiradenak_(Rel)* *bezala zarete* (Liçarrague, 1571, Luc XI,

hitzak ere -fidagarriagoak eta ugariagoak hauek- badaude (*alkandora, azoka, gutun, ar. kutub 'liburuak'*), baina gehienak erromantzeak iragazirik etorri dira.

Ondare-lexikoari dagokionez, oso gutxi dakigu zehazki. Hala ere, gaur egungo ikerketek (Joseba A. Lakarraren eskutik) adierazten dute, antza, jatorrizko lexikoaren multzoaren muina erro laburretan, monosilabikoetan, oinarritzen zela eta, hortik abiaturik, hizkuntzaren bilakaeraren ondorengo urratsetan, bi silaba edo gehiagoko erroak sortuz joan zirela. 2019an euskararen lehen hiztegi historiko-étymologikoa eman zuten argitara Joseba A. Lakarrak, Julen Manterolak eta Iñaki Segurolak: hiztegiaren xedea euskal erro eta hitz-familia ugariren jatorria argitzea da, lan zail eta korapilatsua, inondik ere, euskara bezalako hizkuntza isolatu baten kasuan.

44) « vous êtes comme les sépulcres qui ne paraissent pas » (structure qui peut être comparée à l'actuel *ageri ez direni_(Rel) monumentuak bezala(koak) zarete*). Elles peuvent être considérées comme des propositions relatives internes. Ainsi, la langue basque dispose de presque toutes les opportunités typologiques possibles pour constituer des propositions subordonnées relatives.

4. CARACTÉRISTIQUES LEXICALES

Le lexique de l'euskara étant l'un des aspects les plus méconnus de la langue, il a donné lieu à toutes sortes de suppositions étymologiques, plus ou moins fondées. Ce sont malheureusement les moins fondées qui ont été les plus nombreuses tout au long de l'histoire. Nous savons avec certitude que la langue basque s'est nourrie abondamment de mots latins et romans. Certains emprunts sont d'ailleurs aisément identifiables : *bake* « paix » < lat. *pace(m)*, *ohore* « honneur » < lat. *(h)onore(m)*, *liburu* « livre » < lat. *libru(m)*, *herren* « boîteux », *herrenka* « en boîtant » < esp. *renero, rengó* ; d'autres sont moins évidents : *aizkora* « hache » < lat. *asciola, begiratu* « regarder » < lat. *vigilare*, *biao* « sieste » < lat. *meridianu(m)*, *aitortu* « reconnaître » < aragonais ancien *aytorgar*. Il est possible qu'il y ait aussi, bien que dans une moindre mesure, un lexique emprunté aux anciennes langues celtes (*mando* « mule », *gori* « incandescent », *maite* « cher/chère », peut-être *izokin* « saumon », même si ce dernier terme est susceptible de provenir du latin tardif ou bas latin *esocina*, que l'on retrouve sans doute dans le mot asturien *esguín* « jeune saumon »), et quelques rares mots d'origine germanique (peut-être *urki* « bouleau »). Il existe également des mots, certainement plus nombreux et à l'origine plus avérée, d'origine arabe, qui seraient parvenus dans le lexique basque par le filtre de la langue romane : *alkandora* « chemise », *azoka* « marché », *gutun* « lettre », de l'arabe *kutub* « livres ».

Concernant le lexique patrimonial, on sait peu de choses de science exacte. Cependant, les recherches les plus récentes (menées par Joseba A. Lakarra) semblent pointer le noyau d'un patrimoine lexical originel basé sur des racines courtes, des monosyllabes, à partir desquelles, durant l'évolution ultérieure de la langue, des racines de deux syllabes ou plus furent créées. Le premier dictionnaire historico-étymologique de la langue basque, élaboré par Joseba A. Lakarra, Julen Manterola et Iñaki Segurola, a été publié en 2019. Il apporte des éclairages sur l'origine de nombreuses racines et familles lexicales, une tâche toujours complexe et délicate pour une langue génétiquement isolée comme l'euskara.

Hizkuntzaren bilakaera



10

Hizkuntza guzietan salbuespenik gabe gertatu ohi den bezala, euskararen egitura fonologiko eta gramatikala aldatuz joan da historian zehar. Euskarak idatzizko tradizio labur samarra izanagatik ere (tamaina jakin bateko testuak XVI. mendekoak baino ez dira), nabaria da Aro Modernoaren hasieran hitz egiten zen euskararen edo haren aldaeren eta egungo hizkuntzaren artean dagoen aldea. Horretaz jabetzeko, nahikoa litzateke *Refranes y Sentencias-en* (1596) jasotako esaldiren bat gogora ekartzea, esaterako *y quedac ta diqueada* (grafia gaurkotuan *ikedak (e)ta dikeada*) 'darasme y darete' (RS 233). Haren gaurko ordain estandarra *emadak eta emango diat* bezalakoetan bilatu behar genuke. Jakina, espero izatekoa da hura baino euskara zaharragoaren eta egungo hizkuntzaren arteko ezberdintasunak are nabarmenagoak izatea.

Hala eta guztiz, lehen idatzizko lekukotasunetik hona igarotako mendeetan euskararen egitura fonologiko eta, hein batean, gramatikalaren aldaketa nahiko mugatua izan da. Grafien historiari erreparatz gero, bistan da ez bokalen ez kontsonanteen sistemaren ez dela ezer irauli (alegia, ez dela fonemen galera nahiz gehitze nabarmenik gertatu). Eremu morfologikoan bilakabide batzuk azpimarragarriak dira, hala nola kasu marken ordezkatze zenbait (-ean antzinako ablatibo singulararen morfema edo klitikoari, etxerean forman bezala, -tik marka gailentzen zaio, ik. *etxetik*), edo aoristoko nahiz geroaldiko aditz forma berezien (euskarra zaharrean nesan 'esan nuen', ethor cedin 'etorri zen', datorque 'etorriko da',

Évolution de la langue

- 10.** Document de 1167 qui désigne le basque sous le nom de *Lingua Navarrorum*.
11. Glossaire lié au pidgin basco-islandais (XVIIe siècle).

Comme tous les systèmes linguistiques, sans exceptions, l'euskara a vu sa structure phonologique et grammaticale évoluer au fil de son histoire. Malgré une tradition écrite relativement limitée dans le temps (les premiers textes dont la longueur est significative remontent au XVIIe siècle), la différence entre la langue ou les variétés parlées à l'aube du Moyen Âge et les dialectes actuels est évidente. Prenons par exemple l'une des phrases recueillies dans les *Refranes y sentencias* (de 1596), comme *y quedac ta diqueada* (en graphie modernisée *ikedak (e)ta dikeada*) « donnez-moi et je vous donnerai » (RS 233), dont l'équivalent standard actuel serait *emadak eta emango diat*. On peut supposer que les différences par rapport à l'euskara actuel soient encore plus marquées dans les phases de développement précédentes.

Quo qu'il en soit, durant les siècles qui se sont écoulés depuis les premiers témoignages écrits, l'altération de la structure phonologique et, dans une certaine mesure, de la structure grammaticale a été relativement modérée en euskara. Si on en juge par l'histoire des graphies, on ne note aucun grand renversement dans le système vocalique ni dans le système consonantique (ainsi n'y a-t-il eu aucune disparition ni apparition significative de phonèmes). Sur le plan morphologique, on constate quelques évolutions notables, comme le remplacement des formants de cas (l'ablatif singulier archaïque *-ean*, dans des formes comme *etxerean* « de/dès la maison », est remplacé par *-tik*, cf. l'actuel *etxetik*) ou la disparition de formes verbales spécifiques d'aoriste ou du futur

<p>for ju mala gesuna. fi tut vondio madiar. prefenta for mi berria usnia leta berria bura, gofin mira finta mirell og lyall Emir zager travala for ju. forad goior fin Tafha shal, tu Tafha foel huka bok, og huma kiel. Senzia givis, sangia givis Sarna biffis, gamall kiotis Mimerus</p>
<p>Batt 1. hamar bedritze 19. bia . . 2. hogoitia . . 20. hixri . . 3. hogoitia batt. 21. la . . 4. hog. bixa . . 22. bertz . . 5. hog. hixri . . 23. Seij . . 6. hog. la . . 24. zapoletz galardia for for ju mala usnia. hamar by galardia. 12. pog Seij galardia, oja virja oja virja, reba mirea. Cavintz tyucha for mi reba mirea 19. Christ Mari d prefenta for mi balia, for mi, prefenta for ju bilbiana, grif. chikia og mirea mirea, pog, pog. pog, pog opion prefenta for mi, grif. mire. for ju</p>
11

estacusque 'ez du ikusiko') eta aditz paradigma sintetiko batzuen galera: Lazarragaren eskuizkribuan (ca. 1567-1602) erabiltzen diren *badafinçu* 'ipintzen baduzu', *ce nafinçu* 'ez nazazu ipini' edo *dafinquet* 'ipiniko dut' bezalako formak gaur egun ezinezkoak dira. Galtzapenen ondoan, artikuluaren gramatikalizazio prozesua (**har* urruneko erakuslean oinarri duena) funtsezko garapen diakronikoa da, ziur aski erromantzearen eredutik abiatu zena. Ez dirudi, bestalde, sintaxiak eraldaketa nabarmenik pairatu zuenik hizpide dugun garaian.

Alabaina, euskaren historia aurreko eboluzio faseen (testuetan lekukotuak ez dauden) berreraiketak errotik aldatzen du ikuspegia. Koldo Mitxelenak kontsonante *fortes* (tentsoak) eta *lenes* (ahulak) zeukan sistema fonologiko bat proposatu zuen aitzineuskarako (alegia, akitanierazko idazkunen aurretiko hizkuntza garairako). Ondoren, sistema hori euskalki historiko guztietan ezaguna den ahoskabe/ahostun egitura bilakatuko zen. Mitxelenaren berreraiketa klasikoaren arabera honela antolatzen dira antzinako sistema haren unitate fonologikoak:

Lenes	b	d	g	z	s	n	l	r	h
Fortes	-	t	k	tz	ts	N	L	R	

Aitzineuskarak ez zukeen, eskema horri jarraiki, **p* fonema *fortisa* (bigarrenkaria litzatekeena, hortaz, euskara historikoan) ez eta **m* sudurkaria ere (jatorri anitzekoa, tartean asimilazio fonologikoa eta mailegu lexikoa, besteak beste). Ezpainkari sudurkariaren gabezia irregularitasun tipologiko deigarria da. Bereizketa oinarritzotik kanpo



12. Euskal Herriko leinu protohistorikoen mapa.

12. Carte des tribus basques protohistoriques.

(basque ancien *nesan* « je dis », *ethor cedin* « il/elle vient », *datorque* « il/elle viendra », *estacusque* « il/elle ne verra pas ») et de certains paradigmes synthétiques, comme pour *ipini/ifini* « mettre, poser », qui présente, dans le manuscrit de Lazarraga (ca. 1567-1602) des formes comme *badafinçu* « (si) tu mets », *ce nafinçu* « ne me mets/laisse pas » ou *dafinquet* « je (le) mettrai », impossibles aujourd'hui. Parallèlement aux disparitions, le processus de grammaticalisation de l'article à partir du déictique distal **har* « celui-là » constitue une acquisition significative, probablement inspirée du modèle roman. La syntaxe semble quant à elle avoir été épargnée de grandes transformations à cette période.

Toutefois, la reconstruction des phases d'évolution précédentes, non attestées dans les documents écrits, change profondément la perspective. Luis Michelena proposa pour le protobasque (un stade de la langue antérieur à l'époque des inscriptions d'Aquitaine) un système consonantique structurellement basé sur une opposition de phonèmes *fortes* (ou tendus) et *légers* (faibles), qui devint par la suite le système de consonnes sonores et sourdes qui caractérise tous les dialectes historiques. La reconstruction classique de Michelena répartit ces unités phonologiques comme suit :

Lenes	b	d	g	z	s	n	l	r	h
Fortes	-	t	k	tz	ts	N	L	R	

D'après ce schéma, le système protobasque ne connaît pas la labiale *forte* **p* (secondaire, par conséquent, dans l'*euskara historique*) ni la nasale **m* (à laquelle on attribue plusieurs origines, dont l'assimilation phonologique et l'emprunt lexical), absence qui constitue une anomalie typologique frappante. L'aspiration /*h*/, qui faisait également partie du consonantisme protobasque, était dépourvue d'opposition et résulte dans certains cas de l'évolution de la nasale alvéolaire légère /*n*/.

Les arguments qui motivent la reconstruction d'un consonantisme primitif des phonèmes *fortes* et *légers* partent de données historiques dans lesquelles on observe l'évolution de consonnes occlusives géminées dans des emprunts du latin, qui, bien que sonores, se transforment en occlusives sourdes du basque en position interne dans le mot : lat. *sabbatu* > *zapatu* « samedi », lat. *abbas* > *apaiz* « curé » (de même, à partir de l'arabe *ad-durrā* > *athorra* « chemise »). Le changement n'aurait aucun sens phonologique dans un système consonantique fondé sur l'opposition de la voix (et non de la tension). Une interprétation alternative, bien qu'assez proche, consiste à associer l'opposition à une différence de consonnes simples et géminées (comme le proposa Larry Trask à une époque). Des tentatives de reconstruction interne plus récentes ont cherché à ramener le système protobasque de consonnes *fortes* et *légeres* à un système antérieur dépourvu de cette opposition, avec, par conséquent, un nombre de phonèmes nettement inférieur.

Quant à ses aspects grammaticaux, l'image du protobasque est généralement plus diffuse. Plusieurs hypothèses se sont succédé, avec différents degrés de vraisemblance, à propos de la morphologie et de la syntaxe primitives, parfois en application de points de vue théoriques puissants comme celui de la grammaticalisation. Les formes flexionnelles nominales présentent différentes strates chronologiques, représentées par les marques simples et composées. Tout semble indiquer que le noyau original présentait un ensemble de formes restreint, par rapport à

geratzen da aitzineuskararen kontsonante sistemaren parte ere bazen hasperena (/h/), zeina kasu jakin batzuetan /n/ sudurkari hobikari /nearen bilakabidearen emaitza baita.

Fonema *fortes* eta *lenes* deritzenen hasierako sistema kontsonantiko bat berreraikitzeko arrazoia loturik daude historian lekukotutako bilakabide fonologiko jakin batzuekin: latinetik datozen maileguen jatorrizko herskari geminatuak, ahostunak izanda ere, herskari ahoskabe bihurtzen dira euskaraz hitzaren barruko kokaguneetan: lat. *sabbatu* > *zapatu*, lat. *abbas* > *apaiz* (are arabieratik hartutakoetan ere, ik. *ad-durrā'a* > *athorra*). Aldaketa horrek ez luke zentzu fonologikorik ahotsean (eta ez tentsioan) oinarritutako oposizioa duen sistema kontsonantiko baten barruan. Azalpen alternatibo baina hurbila da sistema hori kontsonante bakun eta geminatu arteko kontraste batekin parekatzen duena (Larry Traskek uneren batean egin bezala). Barne-berreraiketa saio berriago batzuen arabera, *fortes* eta *lenes* kontsonanteak dauzkan sistema halako bereizketarik egiten ez zuen egitura simpleago batetik letorke, zeinean fonemen kopurua, ondorioz, askoz ere apalagoa zen.

Alderdi gramatikalari begiratuz gero, aitzineuskararen irudia lausoagoa da orokorrean. Zenbait hipotesi garatu izan dira, egiantz maila ezberdinakoak, aitzineuskararen balizko morfologia eta sintaxiaren gainean, kasu batzuetan gramatikalizazioaren teoria bezalako tresna indartsuak erabiliz. Izenaren forma deklinatuek geruza kronologiko ezberdinak dituzte, marka bakun eta konposatuetan islatzen direnak. Jatorrizko forma kopurua mugatua zela dirudi, gaur egun euskarak duen egituratik urrun samar legokeena. Nahiko garbi dago, halaber, aditz paradigmak izenordainen eta aditzoinen aglutinaziotik sortu zirela, hurrengo adibideetan bezala: *nator* (< *ni-da-tor, ni-orainaldia/imperfektiboa-erroa) edo *gatoz* (< *gu-da-tor-z, gu-orainaldia/imperfektiboa-erroa-plurala).

Egitura sintaktikoari dagokionez, funtsezko aldakuntzaren bat berreraiki izan da batez ere hitzen oinarrizko hurrenkeran. Gaur egun hitz ordena SOV da, baina Ricardo Gómezek egindako proposamenaren arabera, aitzineuskararena VSO izan zitekeen. Halako hitz ordena batekin tipologikoki bat letorke euskarak duen NAdj egitura (alegia, adjektiboa izenaren ostean), historian zehar lekukotua dagoen bakarra. Hala ere, beste aukera batzuk ere posible dira. Sintaxiak aitzineuskararen berreraiketaren alderdi menturazkoena (baita espekulatiboena ere) izaten jarraitzen du, nolanahi ere.

13. Lergako inskripzioa
(Nafarroa).


13. Inscription de Lerga
(Navarre).



13

celles dont dispose la langue aujourd’hui. De même, il semble clair que les paradigmes verbaux ont surgi de l’agglutination de pronoms et de la base verbale, comme dans *nator* « je viens » (< *ni-da-tor, je-présent/imperfektif-racine) ou *gatoz* « nous venons » (< *gu-da-tor-z, nous-présent/imperfektif-racine-pluriel).

Dans sa structure syntaxique, il se peut que la langue basque ait subi une altération profonde dans son ordre de mots basique, qui est aujourd’hui SOV. Certaines propositions, comme celle de Ricardo Gómez, attribuent au protobasque un ordre VSO, dont le cadre serait plus cohérent avec l’ordre NAdj (nom-adjectif) qui caractérise aujourd’hui l’*euskara* et qui constitue le seul ordre relevé à ce jour dans l’histoire de la langue. Mais il existe évidemment d’autres possibilités. La syntaxe du protobasque demeure l’aspect le plus aventureux et spéculatif de sa reconstruction.



Euskalkien aniztasuna

Euskararen dialektoen arteko aldea oso nabarmena da. Europa osoan, agian beste eskualde txiki batean bakarrik, Eslovenian, da hain begi bistakoa dialektoen aniztasuna. Dialekto eta hizkeren arteko aldeaz ari garenean, gutxienez bi kontuz ari gara. Alde batetik, hizkera batzuk beste batzuei buruz bereizten dituzten ezaugarriez. Bestetik, dialektoen arteko urruntasun linguistikoaz. Azken hori dialektoen arteko elkar-ulermenaren arabera neurtzen da. Ulermen hori ez da berehalakoa, ez eta hurrik eman ere, euskalkien kasuan, bereziki mendebaleko eta ekialdeko muturretan. Aldaera linguistikoak, gainera, kilometro karratu gutxitan sumatzen dira. Euskaldunek kontatu ohi dute, ondoko herrira bizitzera joan bezain laster konturatzen direla beren jaioterriko eta auzo-herriko hizkeren arteko ezberdintasun nabarmenaz. Gaur egun, euskalkiez gaindiko aldaera estandarrak (*euskara batua*) eta euskalkiek, ahozko komunikaziorako erabiltzen direnek, elkar elikatzen dute.

Louis-Lucien Bonapartek, Napoleonen ilobak, 1863an, euskalkien lehen mapa prestatu zuen. Lehenago, beste idazle batzuek, Manuel Larramendik XVIII. mendearen, adibidez, emana zuten euskalki ezberdinaren berri. Bonaparteren lanetan zortzi euskalki aipatzen dira: gipuzkera, bizkaiera, iparraldeko nafarrera garaia, hegoaldeko nafarrera garaia, lapurtera, mendebaleko nafarrera beherea, ekialdeko nafarrera beherea eta zuberera. Euskalki bakoitzak bere barne-sailak dauzka: egile frantsesak 26 azpieuskalki eta 50 barietate lokal kontatu zituen guztira. Erronkaribarko azpieuskalkia (Bonapartek zubererarekin lotu zuena) XX. mendearren bukaeran desagertu zen, azken hiztuna, Fidela Bernat, 1991n hil baitzen. Historian zehar literaturan lau euskalki erabili

14. Menéndez Pidalen mapa, ustez, euskarak historian zehar izan duen zabalpen handiena erakusten duena.

15. 1961eko urtarrilaren 22an Errenerteriako Herriko Etxean egindako ekitaldia, Koldo Mitxelena Euskaltzainian sartzea zela-eta.

14. Carte de Menéndez Pidal, qui prétend représenter la plus grande étendue qu'aït connue la langue basque dans l'histoire.

15. Cérémonie organisée le 22 janvier 1961 à l'Hôtel de Ville d'Errenerteria (Guipuscoa) à l'occasion de l'entrée de Luis Michelena à l'Académie de la Langue Basque - Euskaltzaindia.

Diversité dialectale

La langue basque présente une variété dialectale très importante. En Europe, il semblerait qu'une seule autre région assez réduite, la Slovénie, détienne un tel niveau de diversité dialectale. Lorsque nous parlons des différences entre les dialectes et les parlers, nous nous référons au moins à deux questions : d'une part, les caractéristiques qui distinguent les parlers entre eux ; d'autre part, l'éloignement linguistique entre les dialectes, évalué en termes de compréhension mutuelle entre les locuteurs des différents dialectes, ce qui est loin d'être automatique ou garanti dans le cas des dialectes basques, particulièrement entre les variantes des extrémités occidentale et orientale. La variété linguistique se concentre, en outre, sur une aire géographique réduite : il est fréquent d'entendre des bascophones témoigner du fait qu'ils n'ont pas mis longtemps à se rendre compte, après avoir déménagé dans un village voisin, des différences existant entre leur parler natal et celui de leurs voisins. À l'heure actuelle, la variante supra-dialectale ou standard (*euskara batua*, le basque uniifié) coexiste aux côtés des dialectes, que l'on conserve pour la communication orale.

Louis-Lucien Bonaparte, neveu de Napoléon, élabora en 1863 une première carte dialectale de l'*euskara*. Auparavant, d'autres auteurs comme Manuel de Larramendi au XVIII^e siècle, constatent l'existence de dialectes différenciés. Dans les travaux de Bonaparte, huit dialectes sont établis : le guipuscoan, le biscayen, le haut-navarrais septentrional, le haut-navarrais méridional, le labourdin, le bas-navarrais occidental, le bas-navarrais oriental et le souletin. En outre, chaque dialecte est caractérisé par sa propre différenciation interne : l'auteur



dira nagusiki: ekialdetik mendebalera, zuberera, lapurtera, gipuzkera eta bizkaiera.

Gaur egungo ikerketetan (bereziki, Koldo Zuazoren lanetan) proposatzen da euskalkiak bost taldean sailkatzea: mendebalekoan, erdialdekoan, nafarrean, nafar-lapurtarrean eta zuberotarrean, hain zuzen ere. Gertatu ohi den bezala, ezaugarri linguistikoaren arteko differentziak elkarregandik urrunen dauden eremuetan metatzent dira, hots, mendebaleko euskalkian (bizkaieran) eta zubereran (Euskal Herriko ekialdeko muturrean).

Diferentzia horietako batzuen nondik norakoak adierazteko, maila morfologikoan behintzat, komeni da euskalkien hiru eremu handietako adizkiak alderatzea (sailkapen orokor hori Bonapartek berak asmatu zuen):

Mendebaldekoa	Erdialdekoa	Ekialdekoa	Euskara Batua
<i>dot</i>	<i>det</i>	<i>dut</i>	<i>dut</i>
<i>dau</i>	<i>du</i>	<i>du</i>	<i>du</i>
<i>deust</i>	<i>dit</i>	<i>daut</i>	<i>dit</i>
<i>eban</i>	<i>zuan</i>	<i>zuen</i>	<i>zuen</i>
<i>eutsan</i>	<i>zion</i>	<i>zion/zakon</i>	<i>zion</i>
<i>egingo</i>	<i>egingo</i>	<i>eginen</i>	<i>egingo/eginen</i>

Adizkien zerrenda horrek mendebaleko eremuaren berezitasuna ikusarazten du, beste eremuekin bat-etortze eta antzekotasun gutxien baitu. Erdialdeko eta ekialdeko, ordea, elkarren antzekoagoak dira.

Ahaleginak egin izan dira euskalkien arteko banaketa idazle klasikoek aipatzen dituzten euskal leinu protohistorikoaren garaia arte atzeratzeko (ikusi aurrerago). Hala ere, gaur egun, adostasuna dago berriagotzat jotseko, ez Erdi Aroa baino lehenagokotzat. Halaxe pentsatzen zuen oraindik ere historiako euskalaririk handientzat jotzen denak, Koldo Mitxelenak, eta halaxe pentsatzen dute oraingo dialektologoek. Euskalkien eta Erdi Aroko elizbarrutien arteko mugak elkarrekin etorri ohi dira (Iruñea, Armentia-Calahorra, Baiona, Akize eta Oloroe ziren euskal elizbarrutietako egoitzak). Horrek ez du esan nahi VII. edo VIII. mendeak baino lehen euskara sistema unitario bat zenik, inolako differentzia dialektalik gabea, baizik eta, besterik gabe, gaur egungo euskalki banaketa, gehienez ere, garai horretakoa dela, ez lehenagokoa.

français comptabilise un total de 26 sous-dialectes et 50 variétés locales. Le sous-dialecte roncalais (que Bonaparte associe au souletin) disparaît à la fin du XXe siècle avec la mort de sa dernière locutrice, Fidela Bernat, en 1991. Les dialectes qui ont connu un développement littéraire au cours de leur histoire sont au nombre de quatre : d'est en ouest, le souletin, le labourdin, le guipuscoan et le biscayen.

De récentes recherches (tout particulièrement les travaux de Koldo Zuazo) proposent une classification des dialectes basques en cinq groupes : le dialecte occidental, le dialecte central, le navarrais, le navarro-labourdin et le souletin. Comme souvent, les différences dans les caractéristiques linguistiques sont d'autant plus manifestes que les zones sont éloignées entre elles, en l'occurrence entre le dialecte occidental (biscayen) et le souletin (extrémité orientale de la région bascophone).

Pour illustrer l'étendue de quelques-unes de ces différences, du moins sur le plan morphologique, il convient de comparer les formes verbales des trois grandes aires dialectales (cette classification générale ayant été inventée par Bonaparte lui-même) :

Mendebaldekoa	Erdialdekoa	Ekialdekoa	Traduction
<i>dot</i>	<i>det</i>	<i>dut</i>	je (l') ai
<i>dau</i>	<i>du</i>	<i>du</i>	il/elle (l') a
<i>deust</i>	<i>dit</i>	<i>daut</i>	il/elle me (l') a
<i>eban</i>	<i>zuan</i>	<i>zuen</i>	il/elle (l') eut
<i>eutsan</i>	<i>zion</i>	<i>zion/zakon</i>	il/elle (le) lui eut
<i>egingo</i>	<i>egingo</i>	<i>eginen</i>	part. futur "faire"

Cette liste de formes verbales montre la singularité de la zone occidentale, à savoir celle qui a le moins de points communs avec les autres zones, tandis que la centrale et l'orientale présentent, de ce point de vue, plus de similitudes.

Malgré tous les efforts visant à faire remonter les divisions dialectales aux tribus basques protohistoriques dont nous parlent les auteurs classiques (voir plus loin), on s'accorde aujourd'hui à les considérer comme relativement récentes, ne précédant pas le Moyen-Âge. C'était le point de vue de Luis Michelena, considéré comme le plus grand bascologue de l'histoire, et c'est encore l'opinion des dialectologues actuels. Il existe une certaine correspondance entre les frontières dialectales et celles des diocèses médiévaux (Pampelune, Armentia-Calahorra, Bayonne, Dax et Oloron). Ceci ne signifie pas pour autant qu'avant les VIIe ou VIIIe siècles, la langue basque fût un système unitaire, sans différenciation dialectale ; cela indique simplement que le fondement de la répartition actuelle provient, tout au plus, de cette époque, et ne lui est pas antérieur.

Hizkuntzaren jatorria eta ideiak haren ahaideez


Miguel Unamunok, euskarari buruz 1884an irakurri zuen doktore-tesiaren epigrafean, Jean-Jacques Ampère filologo eta historialari frantsesaren aipamen bat sartu zuen. Horren arabera, «euskarak eta zeltak pribilegio bat partekatu dute: burutaziorik bitxienen mintzagaia izan izana». Ordurako asko esana bazen, euskarari buruz hurrengo mendean garatuz joan diren hipotesiek, gaur egun, hizkuntza zelten gainetik jartzen dute oso, horien harreman linguistikoez, barnekoez zein kanpokoez, ez baitago inolako dudarik. Aitzitik, euskara genetikoki isolaturiko hizkuntza bat denez, neurrik ez duten edonolako usteetarako lur emankorretan gaude, bereziki isolamendu hori nahitaez zuzendu egin behar dela pentsatzen dutenen artean, posible izan edo ez.

Horregatik, euskararen jatorriaz denetariko iritziak adierazi izan dira (eta adierazten dira beti), gehienetan ez buru ez buztan ez dutenak. Egia esan, gutxi dira euskararekin alderatu ez diren familia linguistiko eta hizkuntza isolatuak, ustezko ahaidetasun-harremanen bila.


Argi eta garbi esan daitekeen gauza bakarra da gaur egungo euskara Akitaniako antzinako inskripcioetako hizkuntzarekin loturik dagoela. Inskripcio horiek K. o. I. eta III. mende bitartekoak dira eta 400 bat antroponimo eta 70 teonimo biltzen dituzte, Joakin Gorrotxategiren lanetan modu bereziki xehean aztertuak izan direnak. Akitaniera edo akitaniera-baskoiera, garai hartan, Pirinioez iparraldean ez ezik, hegoaldeko zenbait tokitan ere mintzatzen zen euskararen forma zahar bat izan zitekeen edo, bestela, euskaratik genetikoki oso gertu zegoen hizkuntza bat, bi sistematan ageri diren egiturazko bat-etortzeek frogatu eta inskripcioak osatzen dituzten hitz batzuek adierazten duten bezala: *nescato* (cf. eusk. *neska*), *cison* (cf. *gizon*), *sembe* (cf. *seme*), *andere* (cf. *andere/andre*), *ombe* eta *umme* (cf. *ume*), baita *-tar/-thar* kidegoko atzizkia ere.

Akitanierarekiko lotura horretatik aparte, euskara hizkuntza enbor batekin batu nahi duten ahaidetasun-hipotesi guztiak ez ohi dute oinarri enpirikorik izan, ez eta zorroztasun metodologikorik ere. Sobera zehaztu gabe, bi talde historiko eratu daitezke euskarari buruzko ideiekin: hipotesi klasikoak deitu ditzakegunak, alde batetik, eta modernoagoak, bestetik.

Klasikoen artean, lehenbizi, eusko-iberismoa dago. Teoria horrek euskara iberierarekin lotzen du, hots, Hispaniako antzinako hizkuntza ez-indoeuroparrarekin (ustez, iberierazko *il-* eta euskarazko *hir-i/hur-i* hitzen artean dagoen bat-etortzetik abiaturik). Besteak beste, Wilhelm von Humboldt sinetsi zuen teoria horretan XIX. mendean. Ideia horren aldekoan arabera, bi hizkuntzak enbor berekoak dira eta, ikuspegi horretatik, Antzinatean Iberiako Penintsulako eremu gehienean hitz egin zen hizkuntzaren azken aztarna izanen litzateke euskara. Edonola ere, iberierazko inskripcioak euskarazko itzulpenen bidez ulertzeko irudimen handiz behin eta berriro eginiko ahalegin guztiak alferrikakoak izan dira, dudarik gabe. Euskararen eta iberieraren arteko konparaziotik ondorioztatzen ahal diren formazko eta egiturazko antzekotasunak, gehienez ere, bi sistemen arteko harreman geografiko edo, hobe, kultural berezi batean pentsarazten



Glosa emilianense 31, fol. 67v
Códice 60 de la RAH



Glosa emilianense 42, fol. 68v
Códice 60 de la RAH

Origines de la langue et théories sur ses parentés avec d'autres langues

16. Donemiliaga
Kukulako glosak (X-XI.
mendeak).

16. Gloses de San Millán
de la Cogolla (Xe-Xle
siècles).

Dans l'épigraphie de sa thèse de doctorat sur la langue basque, en 1884, Miguel de Unamuno intègre une citation du philologue et historien français Jean-Jacques Ampère, pour qui « le basque a partagé avec le céltique le privilège de faire dire à son sujet d'incomparables extravagances ». Si à cette époque déjà, toutes sortes de présomptions avaient éclos sur le sujet, les hypothèses sur l'origine de l'*euskara* qui se sont succédé tout au long du siècle suivant placent aujourd'hui la langue basque loin devant ses homologues céltiques, dont les parentés linguistiques, tant internes qu'extérieures, ne font plus actuellement l'objet du moindre doute. En revanche, dans le cas d'une langue génétiquement isolée comme la langue basque, les spéculations ne connaissent pas de limites, surtout entre ceux qui croient que cet isolement doit nécessairement être corrigé, que cela soit possible ou pas.

C'est la raison pour laquelle des opinions totalement pittoresques et presque systématiquement farfelues ont été et continuent à être émises sur les origines de l'*euskara*. De fait, rares sont les familles linguistiques et les langues isolées avec lesquelles la langue basque n'a pas été comparée, dans le but d'établir de prétendues relations de parenté.

La seule chose que l'on puisse affirmer avec certitude à ce jour, c'est le lien qui unit la langue basque actuelle à la langue des anciennes inscriptions aquitaines, datées entre les Ier et III^e siècles après J.-C., et qui contiennent quelque 400 anthroponymes et environ 70 théonymes, étudiés rigoureusement dans les travaux de Joaquín Gorrochategui. Cette langue aquitaine ou aquitano-vasconne, utilisée alors à la fois au nord et dans certaines zones du sud des Pyrénées, pourrait simplement être une forme ancienne de l'*euskara*, ou du moins une langue génétiquement très proche, comme en témoignent les correspondances structurelles que l'on peut apprécier dans les deux systèmes, et comme le prouvent certains mots figurant dans ces inscriptions : *nescato* « fillette » (cf. basq. *neska* « fille »),



digu. Halako zerbaiz egon daiteke hizkuntza-egituren hein bateko hurbilketaren atzean.

Beste hipotesi klasiko samar batek euskara Kaukasoko hizkuntzen multzoan biltzen du. Hizkuntzalari askok (horietariko batzuk prestigiodunak, hala nola, René Lafon), XX. mendean ahalegin nabarmenak egin zituzten euskararen eta Kaukasoko hizkuntzen arteko lotura frogatzeko. Antzekotasun lexiko batzuk eta gramatikalen bat aurkitu ziren Kaukasoko talde batzuekin zein besteekin, baina lotura genetikorako saio horrek bi arazo ditu. Alde batetik, antzekotasunen portzentajeak –batzueta bat-etortzeenak– ez du behin ere gainditzen halabeharrezkotzat jotzen den muga (oso antzeko emaitzak lortzen dira hizkuntza uraldar edo afro-asiarrekin alderatuz gero). Bestaldetik, ez da batere frogatu Kaukasoko hizkuntza guztiak elkarri lotuak daudenik, hori bakarrik ziurtzat jotzen baita georgiera, mingreliera, lazera eta svanera biltzen dituen talde kartveliarraren kasuan. Areago, talde kartveliarrarekiko konparazioak oso azaleko emaitzak ematen ditu, balio zientifiko gutxikoak. Izan ere, haren aldekoek, maiz, uko egin diote denek erabili beharreko arauen aplikazioari, horien artean, bat-etortze fonologiko erregularren identifikazioari, hizkuntzen arteko ahaideasunak frogatu nahi badira. Adibidez, georgiera tipologia aktiboko hizkuntza (eta ergatiboduna) delako, horrek ez du esan nahi litekeena dela hura euskararen ahaidea izatea. Halaber, egitura nominatibo-akusatiboko hizkuntzak ez daude nahitaez elkarri lotuak. Familia berean (indoeuropeo hizkuntzenean, kasu) hizkuntza ergatibodunak (hindia eta kurduera) eta ergatiborik gabeko hizkuntzak (ia gainerako guztiak) egon daitezke.

Bide egin duten beste iritzi batzuek berberearekin edo hizkuntza finougriarrekin lotzen dute euskara. Azken hamarkadetan, euskararekin ustez lotura genetikoa dutenen zerrendari hautagai asko gehitu zaizkio, hala nola, txinera, hizkuntza paleosiberiarrak, kikuyua (Kenian hitz egiten den hizkuntza), antzinako piktoen mintzairak edo Iparraldeko Amerikako hizkuntza batzuek osaturiko na-dene makrofamilia. Proposamen hauetarik, batek ere ez du gutxiengo sendotasun metodologikorik seriotan hartua izateko.

17. Susoko eta Yusoko monasterioen ikuspedia (Donemiliaga Kukulan).

17. Vue sur les monastères de Suso et Yuso (à San Millán de la Cogolla).

cison « homme » (cf. *gizon* « homme »), *sembe* « fils » (cf. *seme* « fils »), *andere* « dame » (cf. *andere/andre* « dame »), *ombe* et *umme* « enfant » (cf. *ume* « enfant »), et également le suffixe d'appartenance *-tar/-thar*.

Hormis ce lien avec l'aquitain, toutes les hypothèses de parenté qui tentent d'associer la langue basque à un tronc linguistique déterminé manquent généralement de fondement empirique et de rigueur méthodologique. Ne serait-ce qu'à titre d'inventaire, on peut classer les idées ayant circulé sur la langue basque en deux groupes : celles que nous pourrions qualifier d'hypothèses classiques, d'une part, et les plus modernes, d'autre part.

Parmi les classiques, on trouve en premier lieu la théorie du basco-ibéricisme, professée notamment par Wilhelm von Humboldt au XIX^e siècle. Cette théorie relie la langue basque à la langue ibère, ancienne langue non indo-européenne d'Hispanie, à partir de correspondances comme celle que l'on trouve prétendument entre *il-* « ville » en ibère et *hir-i/hur-i* « ville » en basque. Selon les défenseurs de cette idée, les deux langues appartiendraient à un tronc linguistique commun, et l'*euskara* serait même le dernier vestige de la langue qui était parlée dans l'Antiquité à travers la Péninsule Ibérique. Quoi qu'il en soit, tous les efforts répétés et imaginatifs pour comprendre les inscriptions ibériques au moyen de traductions faisant appel à l'*euskara* ont été vains. Les similitudes formelles et structurelles qui apparaissent à la comparaison entre les langues basque et ibérique peuvent tout au plus nous faire envisager une relation particulière géographique, voire culturelle, entre les deux systèmes. C'est peut-être de cette relation que découle une certaine convergence mutuelle, bien que partielle, de leurs structures linguistiques.

Une autre hypothèse, relativement classique, consiste à intégrer l'*euskara* dans l'ensemble des langues caucasiennes. Plusieurs linguistes, dont des personnalités tout à fait prestigieuses, comme René Lafon, ont consacré des efforts considérables, tout au long du XX^e siècle, à prouver la relation entre la langue basque et les langues caucasiennes. Des ressemblances lexicales et quelques rares similitudes grammaticales ont été trouvées avec tel ou tel groupe caucasien, mais cette tentative de mise en relation génétique pose un double problème : d'une part, le pourcentage de ressemblances –voire de coïncidences– ne dépasse en aucun cas le seuil de ce qui peut être considéré comme totalement accidentel (par exemple, des résultats très similaires sont obtenus dans la comparaison avec des langues uraliennes ou afro-asiatiques) ; d'autre part, il n'est pas démontré, loin s'en faut, que les langues caucasiennes soient toutes apparentées entre elles, chose qui n'est certaine que pour le groupe karvélien (géorgien, mingrélien, laz et svan). Cependant, même la comparaison avec le groupe exclusivement karvélien montre systématiquement des résultats très superficiels et dépourvus de rigueur scientifique, étant donné que les défenseurs de cette thèse ont généralement renoncé à appliquer des règles universellement reconnues, dont l'identification de correspondances phonologiques régulières, pour la démonstration de parentés linguistiques. Le fait que le géorgien, par exemple, soit une langue de typologie active (et présentant le cas ergatif), ne rend pas génétiquement probable sa proximité avec la langue basque, de la même manière que les langues à structure nominative-accusative ne sont pas pour autant apparentées entre elles. Par ailleurs, il est tout à fait possible que des langues ergatives (comme l'hindi et le kurde) et des langues non-ergatives (quasiment toutes les autres) puissent coexister dans une même famille (celle des langues indo-européennes).

D'autres suppositions, associant l'origine de la langue basque au berbère ou aux langues finno-ougriennes, ont également fait leur chemin. Au cours

Azken aldi honetan, nazioartean entzute handia duen hizkuntzalari baten (Theo Vennemann) eskutik, beste hipotesi bat gorputzu da, ez ahaidetasunaz, euskararen jatorriaz baizik. Oso hipotesi eztabaidegarria da, baina, batera, oso erakargarria adituak ez direnentzat. Vennemannek antzinako Europako toki-izenak aztertu ditu eta, haren arabera, bertako lehen bizilagunen hizkuntza euskararen forma zahar-zahar bat izan liteke, *Proto-Vasconic* deritzona. Euskara Europaren jatorriarekin lotzeko ideia berria ez bada ere, Vennemann eta haren kolaboratzaileen metodoa bada. Izen ere, tokien eta ibaien izenei buruzko burutazio etimologikoak eta populazio genetikaren datuak konbinatzen ditu. Arazo nagusia hauxe da: *antzinako europera* delakoaz duen ikuspegia ezbaian jarri dela, bai indoeuropar hizkuntzetako adituen aldetik, bai euskalarien aldetik ere eta, gainera, datu genetikoak, hizkuntza frogarik gabe, ez dira batere erabakigarriak.

Azkenik, Juliette Blevinsek, nazioartean izena duen beste hizkuntzalari batek, aitzineuskararen eta aitzinindoeuroparen arteko lotura genetikoa aldarrikatu du. Haren aburuz, bi hizkuntza horiek enbor bereko adarrak izan litezke. Proposamen erradikala da, eta oso eztabaidegarria, aitzineuskararen ustezko ezaugarri fonologikoen berreraiketa alternatibo eta tarteka oso berezi batean oinarritzen dena.



18

18. Joana Albretekoa, Nafarroako erregina (1555-1572).

des dernières décennies, de nombreux autres candidats sont venus s'ajouter à la liste des langues supposées avoir un lien génétique avec l'*euskara*, du chinois ou des langues paléo-sibériennes au kikuyu (langue parlée au Kenya), en passant par la langue des anciens Pictes ou la macro-famille na-dené des langues d'Amérique du Nord. Aucune de ces propositions ne peut se targuer d'une méthodologie suffisamment solide pour pouvoir être prise au sérieux.

Au cours de ces dernières années, un linguiste de renommée internationale, Theo Vennemann, a développé une hypothèse, non pas sur la parenté, mais sur l'origine de la langue basque. Cette proposition a été hautement controversée, malgré un fort pouvoir d'attraction sur les non-spécialistes. Selon l'analyse des toponymes de la vieille Europe de Vennemann, la langue de ses premières populations serait une forme très ancienne de l'*euskara*, qu'il appelle *Proto-Vasconic*. Bien que l'idée de mettre en relation la langue basque avec les origines de l'Europe ne soit pas nouvelle, la méthode de Vennemann et de ses collaborateurs, elle, est inédite, car elle combine une certaine spéculation étymologique sur les formes toponymiques et hydronymiques avec des données génétiques concernant ces populations. Le principal problème réside dans le fait que sa vision de ce qu'il considère comme « l'european ancien » a été sérieusement remise en cause, à la fois par les spécialistes de l'indo-européen et par ceux de la langue basque. En outre, les données génétiques, sans le support de la preuve linguistique, ne sont en aucun cas déterminantes.

Enfin, ces dernières années, Juliette Blevins –autre linguiste au prestige international– a proposé l'existence d'un lien génétique entre le protobasque et le protoindoeuropéen, qui pourraient être des branches d'un tronc commun. Il s'agit d'une proposition radicale et très controversée, fondée sur une reconstruction alternative et parfois très personnelle de plusieurs traits phonologiques qui caractérisaient prétendument le protobasque.

En conclusion, il n'existe pas de raisons empiriques solides permettant de penser que la langue basque puisse être apparentée à d'autres systèmes au-delà de l'aquitain ancien, ou de déplacer son origine géographique vers une région éloignée de celle qu'occupent ses locuteurs actuellement. Du point de vue chronologique, il est évident qu'aucune preuve ne nous permet de remonter son origine, contrairement à ce qui a parfois été dit, au Paléolithique supérieur (Âge de Pierre).

Dans ses contacts avec les langues environnantes, l'influence de l'*euskara*, bien que limitée, est traditionnellement admise dans le processus de formation des langues romanes comme le navarraïs, le riojan, le gascon et même –avec beaucoup moins de certitude– le castillan, spécialement dans le domaine phonologique et lexical. Parmi les mots basques clairement empruntés par les langues romanes on peut mentionner, par exemple, l'espagnol *izquierdo* 'gauche' (< basq. *ezkerr(a)* 'gauche') ou *chatarra* 'ferraille' (< basq. *zatarr(a)* 'guenille, haillon'). De son côté, la langue basque a incorporé à sa structure grammaticale et lexicale de nombreuses caractéristiques romanes. En ce sens, on peut parler de relation d'influence mutuelle, avec alternances selon les périodes historiques, malgré une prédominance indubitable des emprunts au latin et aux langues romanes par l'*euskara*. De même, dans sa structure grammaticale, la langue basque a reproduit quelques traits originaires des systèmes romans, dont la création des articles, la tendance à la disparition de la distinction des cas instrumental et commitatif ou le marquage différentiel de l'objet –au moyen de marques datives– quand ce dernier est animé (dans certaines variétés de la langue).

Laburbildurik, ez dago arrazoi enpiriko sendorik pentsatzeko euskarak ahaidesasun-harremanak dituela beste sistema batzuekin, antzinako akitanieraz gain, ez eta, haren jatorria euskaldunak gaur egun bizi direneko eremutik asko urrentzeko ere. Ikupegi kronologikotik, ez daukagu, bistan da, inolako frogarik euskararen jatorria nora eta Goi Paleolitora (hots, Harri Arora) eramateko, inoiz halaxe esan den arren.

Euskararen eta haren inguruko hizkuntzen arteko loturari dagokionez, Nafarroako, Errioxako, Gaskoiniako eta, askoz duda gehiagorekin, Gaztelako errmantzeak osatzeko prozesuan eragin mugatua izan zuela pentsatu izan da, gehienbat fonologian eta lexikoan. Errmantzeek euskaratik hartutako hitz seguruen artean gaztelaniazko *izquierdo* (< *ezkerr(a)*) edo *chatarra* (< *zatarr(a)*) daude, esaterako. Bere aldetik, euskarak errmantzeen ezaugarri asko bildu ditu bere egitura gramatikalean eta lexikoan. Elkarrenganako eragineko harreman bat izan da. Historiako garaien arabera, eragin horiek txandakatu egin dira, baina ez dago dudarik euskarak latinari eta hizkuntza erromanikoei harturiko mailegu lexikoak nagusi direla. Egitura gramatikalean ere, euskarak hainbat ezaugarri mailegatu ditu errmantzeekiko ukipenaren ondorioz, tartean artikuluaren sorrera, kasu instrumentalaren eta komitativoaren arteko bereizketaren galerarako joera edo objektuaren markaketa berezitua -datibozko marken bidez- objektua biziduna denean (hizkera batuetan).

Orobat, pasa diren mendeetan, euskararen aztarna *pidgin* edo kode misto banatan igartzen da, Islandian eta Kanadako ekialdeko kostan, Euskal Herriko baleazaleek eramanik, eta, ia gaurdaino, Galiziako, Asturietako eta Gaztelaren iparraldeko hizkeretan (*mascunce*, *xiriga*, eta abarretan) eta *motxaile* edo ijito euskaldunen *erromintxela* hizkuntzan ere bai. Euskarazko bi hitz gutxienez (*akelarre* eta *silueta*, *zilueta/zulueta-tik* datorrena) mendebaleko hizkuntza askoren lexikoaren osagaiak dira.

19. Esteban Garibai
(1533-1599).

D'autre part, au cours des siècles passés, la langue basque a marqué de son empreinte certains pidgins (codes mixtes) d'Islande et de la côte orientale du Canada, utilisés par les baleiniers basques, ainsi que, plus près de nous, les argots des tuiliers et des carriers de Galice, des Asturies et du Nord de la Castille (*mascunce*, *xíriga*, etc.), et l'*errromintxela*, la langue des *motxaile* ou Bohémiens basques. Deux mots, au moins, d'origine basque (« *aquelarre* », d'*akelarre* ou « *lande du bouc* », et « *silhouette* » qui provient de *zilueta/zulueta* ou « *lieu à trous* ») ont intégré le lexique de nombreuses langues occidentales.



19. Esteban de Garibay
(1533-1599).


Protesto d'el Autor.

EN EL nombre de la sanctissima Trinidad, Padre, y Hijo, y Spiritu Santo, tres personas, y un solo Dios verdadero, y de la virgen Santa Maria, Señora nuestra, y del glorioso Apostol Santiago, patron de los reynos d'Espana, y guiaador y defensor de los Catholicos Reyes de Castilla y Leon, y en gloria y augmento de nuestra sancta Fe Catholica, siguense los Quarenta libros d'el Compendio historial, de las chronicas y conuiercial historia de todos los reynos d'Espana. Los quales el Autor, como hijo obediente de la sancta Iglesia, pone debaxo de la protection y censura suya, y de sus Catholicos ministros: y protestando esto, comienza la obra.

Euskararen muga historikoak


Aurreko atalean azaldu den bezala, euskara antzinako iberieraren hondar bat zela pentsatzeko behar adina frogatzen daude eta, beraz, ezin da ondorioztatu, erromatarrek etorri baino lehen, Portugal eta Espainia osoan hitz egiten zela. Aitzitik, baditugu argumentuak euskararen eta gaur egungo Frantziaren hego-mendebalean mintzatzen zen akitanieraren arteko harreman genetikoaren alde jotzeko. Deigarria bada ere, mintzairak horretako ia inskripzio guztiak gaur egun euskarak mintzatzen deneko lurraldetik urrunen dagoen Akitaniaren partean aurkitu dira. Hala ere, pentsatzen ahal dugu euskara Lapurdin, Baxenabarren eta Zuberoan ere hitz egiten zela. Hiru herrialde horiek Novempopulaniaren barruan zeuden III. mendean.

Duela bi mila urte, gaur egungo Euskal Herrian zazpi leinu edo *gens* bizi ziren. Baskoiak Nafarroan eta Gipuzkoako, Huescako, Zaragozako eta



- 20.** Juan Antonio Mogelen *Peru Abarka* (1881).
21. Leizarragaren Testamentu Berria (1571).

- 20.** Peru Abarca, de Juan Antonio Moguel (1881).
21. Le Nouveau Testament de Liçarrague (1571).



Frontières historiques de la langue basque

Comme mentionné précédemment, les éléments qui prouvent que la langue basque puisse être un vestige de l'ibère ancien sont insuffisants. Par conséquent, on ne peut pas affirmer qu'elle ait été parlée dans la totalité des territoires du Portugal et de l'Espagne actuels avant l'arrivée des Romains. En revanche, nous disposons d'arguments appuyant la thèse d'un lien génétique entre l'*euskara* et l'*aquitain*, parlé dans le sud-ouest de la France actuelle. Curieusement, presque toutes les inscriptions dans cette langue ont été conservées dans la partie de l'Aquitaine la plus éloignée du territoire aujourd'hui bascophone. Nous pouvons supposer, toutefois, que l'*euskara* était également parlé au Labourd, en Basse-Navarre et en Soule, qui faisaient partie, au IIIe siècle, de la province dénommée Novempopulanie.

Logroñoko probintzien zati banatan zeuden. Barduliarrak, Gipuzkoaren zatirik handienean eta Arabako lur-zerrenda batean. Karistiarrik Bizkaiaren eta Arabaren gehienean eta Gipuzkoaren mendebalean. Autrigoiak, Bizkaiko Enkartazioetan eta Arabaren, Santanderren eta Burgosen zatietan. Errioxa, zentzu zabalean ulertua, Arabaren, Nafarroaren eta Burgosen zati bana barne, beroiena zen. Lapurdi-Baxenabarreetan, eta Landen hegoaldean, geroko Novempopulaniako populu bat, tarbeliarrik, ziren nagusi. Eta Zuberoan, beste bat, sibilateak, herrialde honi izena eman ziotenak.

Hasiera batean baztertzekoak izan ez badadi ere, gaur egun, eskura dauzkagun iturri literario, arkeologiko eta linguistikoak ez dira aski «baskoitz berantiarra» izeneko hipotesiari eusteko. XVII. mendean, Allande Oihenart zuberotar historialariak, Akitaniako inskripzioak ez zezagutzanak, pentsatu zuen baskoiak zirela Antzinateko leinu euskaldun bakarra eta, Erdi Aroaren hasieran, beste leinuen lurraldeak kolonizatu zituztela. XX. mendean, Adolf Schultenek lagundu zuen Oihenarten tesiak zabaltzen, Joan Biclarokoa eta Gregorio Tourskoa Erdi Aro Garaiko kronisten pasarte batzuen interpretazio behartu batez baliatuz. Claudio Sánchez-Albornozek nafarrentzat jatorri etniko diferente bat proposatu zuen, arabarrak, gipuzkoarrak eta bizkaitarrak berandu euskaldunduriko indoeuropar herriak zirelakoan. Hala ere, zaila da ulertzen nola inposatu ahal izan zieten beren hizkuntza baskoiek, Euskal Herriko leinu protohistorikoetan erromatartuena osatzen zutenek, beste *gens-ei*. Izen ere, gaztelaniazko *vascongado* hitzak ez du 'baskoitua' esan nahi, baskoien zabalpenaren aldeko batzuek adierazi ohi duten bezala, 'euskalduna' baizik: XIX. mendea arte nafar gehienak *vascongadoak* ziren eta arabar eta enkartau asko ez ziren *vascongadoak*, *romanizadoak* ('erromantze-hiztunak') edo *latinadoak* ('latin-hiztunak') baizik.

Zinez deigarria da Hego Euskal Herriko leinuen herrien izen gehienak, Ptolomeok II. mendean bildu zituenak, ezin direla interpretatu euskararen bidez. Salbuespen batzuk daude, denak baskoien eremuan, honako hauek: *Pompaelo* eta *Andelos* (bi kasuetan, bigarren osagaia **h)il* dirudi, hots, 'hiri': Iruñea eta Andion, Mendigorritik gertu, hurrenez hurren) eta *Oiasso* ('oihan + zu': Irun/Oiartzun). Ptolomeoren tauletako euskarazko toki-izenen urritasunak Oihenarten kontrakoa pentsarazi die egile batzuei, horien artean, Ulrich Schmoll, Jürgen Untermann eta Francisco Villar (oso hipotesi iradokigarria, baina zuberotarrarena bezain eztabaidagarria), alegia, historia aurreko garaian euskara bakarrik Akitanian hitz egiten zela eta hortik Pirinioez hegoaldera ekarri zela, gure aroaren aurreko I. mendetik gure aroko VII. mendera bitarte. Lergako inskripzioa, Zangozako merindadearen hegoaldean, Nafarroan, II. edo III. mendekoak, euskararen antzeko hizkuntza bateko pertsona-izenak biltzen ditu eta, beraz, beste pertsona-izen batzuekin eta *Pompaelo*, *Andelos* eta *Oiasso* toki-izenekin batera, ustezko akitaniar kolonizazioaren lehen adibideetako bat izan liteke.


Baditugu, beraz, froga epigrafikoak, duela bi mila urte gaur egungo euskararen aurrekaria den hizkuntza bat Akitanian eta, behintzat, Nafarroako toki batzuetan hitz egiten zela adierazten dutenak, eta zantzu batzuk, pertsona eta jainko-izenak barne, barduliarren eta karistiarren lurraldeei buruz gauza bera, akaso tentu gehiagoz, pentsarazten digutenak. Baina autrigoien eta baskoien beren errealitatea are nahasiagoa da, ondoren azaltzen saiatuko garen bezala (ez gara beroiez luzatuko, garbi baitago zeltak zirela).

Il y a deux mille ans, le territoire actuel du Pays Basque était peuplé par sept tribus ou *gentes*. Les Vascons occupaient la Navarre et certaines parties des provinces du Guipuscoa, de Huesca, de Saragosse et de Logroño. Les Vardules, la majeure partie du Guipuscoa et une bande du territoire d'Alava. Les Caristes, la majeure partie de la Biscaye et de l'Alava, et l'ouest du Guipuscoa. Les Autrigons, les Encartaciones de Biscaye, ainsi que certaines parties des provinces d'Alava, de Santander et de Burgos. La Rioja au sens large, qui comprend des parties de l'Alava, de Navarre et de Burgos, appartenait aux Berones. Au Labourd et en Basse-Navarre, ainsi que dans le sud des Landes, vivait un peuple de la future Novempopulanie, les Tarbelles. La Soule abritait quant à elle les Sybillates, dont le nom est à l'origine de celui de la province.

Bien qu'elle fût envisageable dans un premier temps, l'hypothèse de la « vasconisation tardive » manque aujourd'hui de sources littéraires, archéologiques et linguistiques qui la défendent. Au XVII^e siècle, l'historien souletin Arnauld Oihénart, qui ignorait l'existence des inscriptions aquitaines, suggère que les Vascons étaient la seule tribu bascophone dans l'Antiquité, et en déduit qu'ils colonisèrent les territoires des autres tribus au début du Moyen Âge. Au XX^e siècle, Adolf Schulten contribue à la diffusion de la thèse d'Oihénart, en se basant sur une interprétation poussive de fragments des chroniqueurs du haut Moyen Âge Jean de Biclar et Grégoire de Tours. Claudio Sánchez-Albornoz va même jusqu'à défendre une origine ethnique distincte des Navarrais, par rapport aux Alavais, Guipuscoans et Biscayens, qui seraient des peuples indo-européens basquisés tardivement. Cependant, il est difficile d'expliquer comment les Vascons, les plus romanisés parmi les tribus basques protohistoriques, purent imposer leur langue aux autres *gentes*. En effet, le mot *vascongado* (l'un des mots espagnols pour « basque ») ne signifie pas « vasconisé » comme le suggère la théorie des partisans de l'expansion vasconne, mais simplement « bascophone » : jusqu'au XIX^e siècle, la majorité des Navarrais étaient *vascongados*, tandis que de nombreux habitants de l'Alava et des Encartaciones n'étaient pas appelés ainsi : on les disait plutôt *romanizados* (« locuteurs du roman ») ou *latinados* (« locuteurs du latin »).

Il est frappant que la majorité des noms des peuplements de ces tribus basques péninsulaires, qui nous sont transmis par Ptolémée au I^e siècle, soient impossibles à interpréter au moyen de l'*euskara*. Parmi les exceptions (toutes en territoire vascon), on trouve les noms suivants : *Pompaelo* et *Andelos* (dont le second élément dans les deux cas paraît être **h)il* « ville » : Pampelune et Andion, près de Mendigorria) et *Oiasso* (« lieu pourvu de forêts » : entre les actuelles villes d'Irun et Oiartzun, en Guipuscoa). Cette absence de toponymes basques dans les tableaux de Ptolémée a conduit quelques auteurs, comme Ulrich Schmoll, Jürgen Untermann et Francisco Villar, à supposer le contraire de la thèse défendue par Oihénart, qui est tout aussi intéressante mais discutable que l'hypothèse de l'auteur souletin : à l'époque protohistorique, l'*euskara* était parlé seulement en Aquitaine, et il s'est étendu plus tard au sud des Pyrénées, entre le I^e siècle avant notre ère et le VII^e siècle de notre ère. L'inscription de Lerga, au Sud de la *merindad* de Sangüesa, en Navarre, qui date du I^e ou II^e siècle, comporte des anthroponymes dans une langue identifiée comme euskarienne. Il s'agirait là, avec quelques autres anthroponymes et les noms de *Pompaelo*, *Andelos* et *Oiasso*, de l'une des premières manifestations de la supposée colonisation aquitaine.

Si nous avons des preuves épigraphiques qu'une langue prédecesseure de l'actuelle langue basque était parlée il y a deux mille ans en Aquitaine



22

Oso litekeena da autrigoiak indoeuropar jatorria izatea, zeltikoa, zehatzagoak izanez gero. Enkartazioen ekialdeko partean euskarazko toponimia badago, baina mendebalekoan ez dago ia-ia. Muga linguistikoa Kolitza eta Serantes mendietako gailurren arteko alegiazko lerro batetik doa eta, gutxi gorabehera, Pisoracatik Flaviobrigara zihoa erromatar galtzadarekin bat egiten du. Halaber, Arabaren mendebaleko muturrean (Artziniegan, Gaubean eta Añanan) eta Trebiñurenekoan, autrigoien Iurrealdean, euskarazko toki-izenak oso-oso gutxi dira.

Baskoiei dagokienez, Nafarroaren iparraldeko bi herenetan, euskarazko toponimia badago, ez, ordea, hegoaldekoan. Koldo Mitxelenak adierazi zuen bezala, baskoi guztiak ez ziren euskaldunak eta euskaldun guztiak ez ziren baskoiak. Euskararen muga historikoa, gutxi gorabehera, Tafallan dago, Mendialdeak eta Erriberak, Nafarroako bi eskualde tradizionalek, bat egiten duten tokitik oso gertu. Lerro horretaz hegoaldean aipatzea merezi duten salbuespen bakarrak honako bi hauek dira: Murillo el Cuende eta Zarrakatzeluko eremua, non Erdi Aroaren bukaera arte euskaraz mintzatu baitzen eta euskarazko toponimiak hein batean erronkiar eta zaraitzuar artzainek Bardeara egiten zuten

22. Anton Abadia-
-Ürrüstoi (1810-1897).

et dans certaines parties de la Navarre, et si nous disposons d'indices (sous forme d'anthroponymes et de théonymes) nous permettant de supposer, peut-être avec davantage de précaution, une situation similaire sur le territoire des Vardules et des Caristes, la réalité des Autrigons et des Vascons eux-mêmes s'avère plus complexe, comme nous tenterons de l'expliquer plus bas (nous n'approfondirons pas sur les Berones, car leur origine celte ne fait aucun doute).

Il est plausible que les Autrigons aient été un peuple d'origine indo-européenne, et plus précisément celte. Il existe une toponymie basque dans la partie orientale des Encartaciones, mais dans sa partie occidentale, la toponymie basque est quasiment inexistante. La frontière linguistique parcourt une ligne imaginaire entre les sommets de Colisa et Serantes, et coïncide plus ou moins avec la chaussée romaine allant de Pisoraca à Flaviobriga. De même, dans la zone la plus occidentale d'Alava (Artziniega, Valdegovía et Añana) et de Treviño, également territoire autrigon, les toponymes basques sont très minoritaires.

Concernant les Vascons, il existe une toponymie basque dans les deux tiers septentrionaux de la Navarre actuelle, beaucoup moins présente dans le sud. Comme l'observe Luis Michelena, tous les Vascons n'étaient pas bascophones, et tous les bascophones n'étaient pas Vascons. La limite historique de l'euskara se trouve plus ou moins à la hauteur de Tafalla, qui coïncide presque exactement avec la frontière entre Montaña et Ribera, les deux régions traditionnelles de Navarre. Les seules exceptions notables au Sud de cette ligne sont la zone de Murillo el Cuende et Carcastillo, qui fut bascophone jusqu'à la fin du Moyen Âge et dont une partie de la toponymie basque est peut-être due à la transhumance des bergers de Roncal et Salazar vers les Bardenas, et la zone de Lazagurría, Sesma et Mendavia, où perdure une toponymie basque très résiduelle, qui pourrait être un prolongement de celle de la Rioja.

En dehors de ces exceptions notables, il n'existe pas de toponymie basque au sud de Tafalla. *Erriberri* (la « Nouvelle Terre » ou Estrémadure) n'est pas exactement l'équivalent basque de Olite, mais l'appellation que les Navarrais bascophones de la « Vieille Terre » (*Errizar) donnèrent à la région de langue romane conquise aux musulmans. Azkoien, le supposé nom basque de Peralta, est un néologisme du début du XXe siècle. Quant à Alfaro, dans l'actuelle Rioja, mais qui appartenait alors au territoire des Vascons, son nom latin est *Gracchurris*, dont le deuxième élément a été identifié comme *(h)uri* ou *(h)iri* « ville » en euskara moderne. Cependant, cette identification n'est absolument pas certaine (en protobasque, cela devrait être **(h)iil*), et même si cela était avéré, cela ne prouverait rien, car cela pourrait être un emprunt à l'ibère (ce qui poserait d'autres problèmes). Au IVe siècle, Festus est le seul auteur qui signale que *Gracchurris* s'appelait auparavant *Ilurcis*. Il est probable, toutefois, que *Ilurcis* ait été une erreur pour *Iliturgis*, la Mengíbar moderne, dans la province de Jaén, en Andalousie. L'erreur de Festus peut être due au fait que les villes d'Alfaro et de Mengíbar furent fondées par Tiberius Sempronius Gracchus. Quant à *Calagurris*, actuelle Calahorra, il s'agissait à l'origine d'un peuplement celtibère, attribué ultérieurement aux Vascons, dont le nom n'a aucun rapport avec *gorri* « rouge ».

Curieusement, d'autres territoires, qui aujourd'hui n'ont rien de basque, conservent une toponymie basque. C'est le cas du Nord de l'Aragon et du Nord-Ouest de la Catalogne, de la Haute-Rioja et de la Bureba (province de Burgos). Ceci ne signifie en aucune manière que l'euskara ait été parlé


transhumantziari esker iraun baitu beharbada, eta Elizagorria, Sesma eta Mendabiako eremua, non euskarazko toki-izen bakan batzuek baitiraute, agian Errioxakoena jarraipena direnek.

Aipatu diren salbuespen horietaz gain, Tafallaz hegoaldean ez dago euskarazko toponimiarik. *Erriberri* ez da, berez, Oliteren euskal izena, **Errizar*-ko nafar euskaldunek musulmanei konkistaturiko eremu erdaldunari emaniko deitura baizik. *Azkoien*, Peraltaren ustezko euskal izena, XX. mendearren hasierako neologismo bat da. Alfarori dagokionez, Errioxan, baina baskoien lurraldean, haren latinezko izena *Gracchurris* da. Horren bigarren osagaia euskara modernoko (*h*)uri edo (*h*)iri-rekin identifikatu da. Hala ere, identifikazio hori ez da batere segurua (aitzineuskaraz *(*h*)il izan beharko luke), eta, balitz, ez luke deus frogatuko, (*h*)uri edo (*h*)iri, ez arazorik gabe, iberierazko mailegu bat izan litekeelako. Festo, IV. mendean, da *Gracchurris*-en izen zaharra *Ilurcis* izan zela dioen egile bakarra. Litekeena da, baina, *Ilurcis* hutsegite bat izatea, *Iliturgis*-en ordez. *Iliturgis* gaur egungo Mengíbar da, Jaéngoa probintzian, Andaluzian. Festoren akatsa agian gertatu zen bai Alfaro, bai Mengíbar, Tiberio Sempronio Gracok sortu zituelako. *Calagurris*-i, gaur egungo Calahorrari, dagokionez, hasiera batean zeltiberiarren herri bat izan zen, gero baskoien esku utzi zena, eta haren izenak ez du zerikusirik 'gorri'-rekin.

Bitxia bada, gaur egun batere euskaldunak ez diren beste lurralte batzuek euskarazko toponimia gorde dute. Adibidez, Aragoiren iparraldeak, Kataluniaren ipar-mendebalak, Errioxa Garaia eta Burgosko probintziako Bureba eskualdeak. Horrek ez du inola ere esan nahi euskara batera Bordeletik Zaragozara eta Santandertik Lleidara bitarteko eremu zabalean hitz egin zenik, maiz entzuten den arren. Gaskoiniaren izena *Vasconia*-tik dator, baina herrialde horretako toki-izen gehienak erromantzezkoak dira (beste askok, baina, aitzineuskararen hondartzat jotzen den -os atzikia edo aldaeraren bat biltzen dute). Posible da, erromatarrek etorri zirenean, euskara, edo euskararen antzeko hizkuntza bat, gaur egun Aragoi edo Kataluniarenak diren lurralteetan mintzatzea, baina ez, pentsatu ohi den bezala, Zaragoza (eta Soria) bezain hegoaldera, bertan euskarazkoak diruditen pertsona-izenak agertu badira ere, eta ez Tossa de Mar bezain ekialdera, oso litekeena baita *Turissa* haren izen zaharrak *Iturritza*-rekin zerikusirik ez izatea. Euskara «Errekonkista» delakoaren garaian hedatu zen Errioxara eta Burebara, Aragoi eta Katalunia gehienean galdua edo galtzear zegoenean. Berez, euskarak luzeago iraun zuen Errioxa Garaiko eta Burebako zenbait tokitan Nafarroako zenbait eremutan baino.

simultanément dans le territoire compris entre Bordeaux et Saragosse, et entre Santander et Lérida, comme on a coutume de l'affirmer. Le nom de Gascogne vient de *Vasconia*, mais la majeure partie des noms de lieux de cette région sont de langue romane (bien que beaucoup d'autres incluent le suffixe -os et des variantes, que l'on interprète comme un vestige du proto-basque). Il se peut qu'à l'arrivée des Romains, l'*euskara*, ou une langue semblable à l'*euskara*, ait été parlée dans des territoires aujourd'hui aragonais et catalans, mais pas, comme on l'a supposé, jusqu'à Saragosse (et Soria) au sud, en dépit de l'existence d'anthroponymes bascoïdes, ni, à l'est, jusqu'à Tossa de Mar, dont l'ancien nom, *Turissa*, n'a très probablement aucun rapport avec le mot basque *Iturritza*, « le lieu des fontaines ». L'extension de la langue basque au territoire de la Rioja et de la Bureba est la conséquence de ce qu'on appelle la *Reconquista*, quand la langue était déjà éteinte, ou en voie d'extinction dans la majeure partie de l'Aragon et de la Catalogne. De fait, l'*euskara* s'est maintenu plus longtemps dans des zones de la Haute-Rioja et de la Bureba que dans certaines parties de la Navarre.

Euskararen iraupenaren zergatikoak



23

erakundeek eta eliteek inoiz aparteko maitasuna izan diotenik.

Zeltek gaur egungo Euskal Herri gehiena kolonizatu zuten. Toki-izen batzuk utzi dizkigute, hala nola *Deba* Gipuzkoan eta *Ultzama* Nafarroan. Etimo batzuk ehuneko ehunean seguruak ez diren arren, antza, euskarak hitz batzuk zor dizkie, adibidez, *maite*, *mando* eta, agian, *izokin*. Ez dakigu zer eragile izan zen erabakigarria, geografia ala demografia, baina Penintsulako eta Akitaniako beste toki batzuetan ez bezala, euskaldunek beretu zitzuten zeltak eta ez alderantziz.

Euskarak irauteko arrazoi eragingarri bat hauxe izan zen: baskoiek ez zietela aurka egin erromatarrei. Dirudienez, hasiera batean baskoienak ez ziren lurralte batzuk, Jaketria, Aragoiko Bost Hiriak eta Errioxaren parte bat haien esku utzi zitzuten Ebro ibarreko herrien oldartzearen ondoren, Kristo aurreko II. mendearen hasieran. Erromatarren kantabriarekiko jarrera alderantzizkoa izan zen, erromatarrei aurka egin baitzieten eta horiek ia-ia akabatu egin baitzituzten.

Antonio Tovarren eta Koldo Mitxelenaren hipotesiaren arabera, euskararen eta latinaren arteko alde genetiko eta egiturazko onuragarria izan zen harentzat. Aitzitik, hizkuntza zeltak, latina bezala, indoeuropar jatorrikoak ziren eta berehala asimilatuak izan ziren. Hipotesi hori osorik ukatu gabe, esplikatu beharko litzateke zergatik desagertu ziren erromatarren presiopean hizkuntza ez-indoeuropar batzuk, iberiera eta tartesiera, adibidez, goi mailako kultura garatua zutenak. Berriro ere, beraiz, azalpen linguistikoak geografiarekin edo antolamendu ekonomiko eta sozialarekin konbinatu behar dira.

Bestaldetik, entzun ohi da kristautasuna berandu sartu zela Euskal Herrian. Kristautasuna, seguruuenik, homogeneizazio kultural eta

Koldo Mitxelenak zioenez, euskararen historiak ezkutatzeten duen egiazko misterioa ez da haren jatorria, gaurdaino iraun izana baizik. Harrigarria da, benetan, hizkuntzak Euskal Herrian irautea, pasabide bat baita, beste herri eta beste jende batzuekin beti harremanetan egon dena, Donejakue Bidea, Euskal Herria kostaldetik eta barnealdetik zeharkatzen duena, XI. mendean instituzionalizatu baino lehen eta horren ondoren. Salbuespenak salbuespen, XVI. mendea arte euskara ez zen idatzi eta ez dirudi

23. Agosti Xahor
(1811-1858).

23. Augustin Chaho
(1811-1858).

Selon Luis Michelena, l'authentique mystère que renferme l'histoire de la langue basque n'est pas celui de ses origines, mais celui de sa conservation jusqu'à nos jours. Il est en effet surprenant que cette langue ait survécu au Pays Basque, lieu de passage toujours en contact avec d'autres lieux et d'autres populations, avant comme après l'institutionnalisation au XIe siècle du Chemin de Saint Jacques, qui traverse le pays par la côte et l'intérieur. À quelques exceptions près, le basque a été, jusqu'au XVIe siècle, une langue non-écrite, et il ne semble pas que les institutions du pays ni ses classes dirigeantes l'aient tenue particulièrement en estime.

Les Celtes colonisèrent une bonne partie du Pays Basque actuel, nous laissant des toponymes comme *Deba*, en Guipuscoa, et *Ultzama* en Navarre. Bien que certaines étymologies ne soient pas parfaitement sûres, il semble que la langue basque leur doive des mots comme *maite* (« cher/chère »), *mando* (« mule ») et peut-être *izokin* (« saumon »). On ne sait pas exactement pour quels motifs, géographiques ou démographiques, mais le fait est que, contrairement à ce qui s'est produit dans d'autres parties de la péninsule ou de l'Aquitaine, les Basques ont assimilé les Celtes, et non le contraire.

Une circonstance clé pour la survie de la langue basque est que les Vascons n'ont pas affronté les Romains. Il semble même que des territoires qui, au départ, ne leur appartenaient pas, comme la Jacétanie, les Cinco Villas dans l'actuelle Communauté Autonome d'Aragon, et une partie de la Rioja, leur aient été concédés après le soulèvement des populations de la vallée de l'Èbre au début du IIe siècle avant notre ère. Cette attitude des Romains contraste avec celle qu'ils adoptèrent vis-à-vis des Cantabres, par exemple, qui résistèrent à leur domination et furent pratiquement exterminés.

Antonio Tovar et Luis Michelena défendent l'hypothèse selon laquelle la distance génétique et structurelle entre la langue basque et le latin supposa un avantage en faveur de ce dernier. Au contraire, les langues celtes partageaient avec le latin leur origine indo-européenne et furent rapidement assimilées. Sans nier cette hypothèse dans sa totalité, il faudrait expliquer pourquoi disparurent, sous la pression romaine, d'autres langues non-indo-européennes, comme l'ibère et le tartésien, qui étaient parvenues à des formes culturelles très avancées. Ainsi, une fois de plus, il faut combiner explications d'ordre linguistique et raisons géographies ou d'organisation économique et sociale.

D'autre part, il est fréquemment allégué que le christianisme s'est introduit tardivement au Pays Basque. Il semble évident que le christianisme ait été un instrument d'homogénéisation culturelle et linguistique, mais en réalité, il est impossible d'affirmer que les pays basques aient été christianisés sensiblement plus tard que d'autres régions européennes. Peut-être la christianisation n'a-t-elle pas été plus tardive, mais moins marquée dans un premier temps, car la nouvelle doctrine s'était répandue à partir des villes, dont le nombre et la taille étaient réduits en terre basque. En réalité, on ne peut citer que trois véritables villes à cette

Raisons de la survivance de l'euskara

linguistikorako tresna bat izan zen, baina, egia esan, ezin dugu baieztago Euskal Herria Europako beste herri batzuk baino berantago kristautu zela. Berantiarragoa izan ez bazeen, agian, hasiera batean ez zen hain trinkoa izan, doktrina berria hirietatik abiatu zelako eta Euskal Herrian hiri gutxi, eta txikiak, zeudelako. Berez, hiru hiri aipatu ditzakegu soilik: *Pompaelo* (Iruñea), *Lapurдum* (Baiona) eta *Veleia* (Iruña Oka, Araban).

Euskarak desagertzeko zorian egon behar izan zuen gure aroko lehen mendeetan, baina Erromatar Enperadoreagoaren desegiteak, une egokian gertatuak, ziurtzat jo zitekeen heriotzatik libratu zuen. Baskoiek, erromatarrekin nahiko ongi konponduak ziren, etengabe aurka egin zieten godoei, Iruñea kontrolatu zutenei. Frankoek beren izenezko nagusigoa ezarri zioten VI. mendetik aurrera *Wasconia* (Gaskoinia) iritziko zien lurraldeari.

Musulmanen inbasioarekin, konkistaturiko lurralteetako kristau askok Penintsularen iparraldeko erresistentzia guneetan hartu zuten aterpe, batzuetan jatorrizko bizilagunak ordeztu zituztelarik. Godoak eta baskoak gaizki konpondu ohi zirenez, Euskal Herrian kokatu ziren iheslariak agian gutxiago izan ziren antzinako Kantabrian kokatu zirenak baino.

Oso harrigarria da, euskarak latinari eta erromantzeari hamaika mailegu hartu badizkie ere (agian bere lexikoaren erdia, eratorpen atzizki asko barne), ia-ia ez dagoela germaniar hizkuntzen mailegurik. Ustezko salbuespen bat, baieztagutu balitz oso adierazgarria izanen litzatekeena, *gudu* da, *godo* hitzarekin loturik egon litekeena. Horrek godo eta frankoekiko harremanen urritasuna adieraz lezake. Esan den bezala, arabierazko maileguak gehiago dira, baina haietariko batzuk inguruko erromantzeen bidez sartu ziren euskaran.

Hurrengo puntuak ikusiko den moduan, eztabaidatzen ahal da noraino lagundu zion euskarari aduanen eta foru erakundeen iraupenak, XVIII. mendea arte Ipar Euskal Herriko hiru herrialdeetan eta XIX. mendea arte Hego Euskal Herriko lauretan. Agian, herriaren pobrezia bera izan zen foruak baino lagungarriagoa, XIX. mende bukaerako industrializazioa arte, Euskal Herria emigrazio eremu bat izan zelako, ez immigrazio eremu bat, orduz geroztik bezala. Argi eta garbi dago, hala ere, historian zehar euskarak frogatu duela beste hizkuntza batzuen hitz eta egiturak beretzeko izugarrizko gaitasuna duela. Horrela izan ez balitz, duela mende batzuk desagertuko zen seguruenik, gaur egungo Spainia-Frantzietan duela bi mila urte hitz egiten ziren beste hizkuntzak bezala.

époque : *Pompaelo* (Pampelune), *Lapurдum* (Bayonne) et *Veleia* (Iruña de Oca, en Alava).

La langue basque devait être sur le point de disparaître au cours des premiers siècles de notre ère, mais la désintégration opportune de l'Empire romain la sauva d'une extinction qui semblait certaine. Les Vascons, qui s'étaient relativement bien entendus avec les Romains, ne cessèrent de se battre contre les Goths, qui contrôlèrent la ville de Pampelune. Les Francs imposèrent leur autorité nominale sur le territoire qui, au VIe siècle, commença à s'appeler *Wasconia* (Gascogne).

Avec l'invasion musulmane, de nombreux chrétiens des territoires conquis se réfugièrent dans les noyaux de résistance du Nord de la péninsule, au point de supplanter leurs habitants d'origine. En raison des mauvaises relations entre les Goths et les Vascons, les réfugiés qui s'établirent en terre basque furent peut-être moins nombreux que dans l'ancienne Cantabrie, par exemple.

Il est très frappant de constater que, face aux innombrables emprunts faits par la langue basque au latin et au roman (qui constituent peut-être la moitié de son lexique, dont de nombreux suffixes dérivatifs), les emprunts faits aux langues germaniques soient pratiquement inexistant. Une exception probable, très significative si elle est confirmée, est le mot *gudu* (« combat »), qui pourrait même être lié à *godo* (« Goth »). Cela pourrait indiquer la précarité des relations avec les Goths et les Francs. Comme cela a été mentionné, les emprunts à l'arabe sont plus nombreux, même si certains d'entre eux ont été introduits par le biais des langues romanes voisines.

Comme nous le verrons dans le prochain point, le bénéfice pour la langue basque de la pérennité des douanes et des institutions forales, jusqu'au XVIIIe siècle dans les trois territoires du Pays Basque Nord et jusqu'au XIXe siècle dans les quatre provinces du Pays Basque Sud, peut être sujette à débat. Davantage que les fors (droits coutumiers locaux), c'est probablement la pauvreté du pays qui a contribué à la survie de la langue. En effet, jusqu'à l'industrialisation de la fin du XIXe siècle, le pays fut un pôle d'émigration et non d'immigration. La langue basque a sans aucun doute démontré tout au long de l'histoire une énorme capacité à adapter des mots et des structures provenant d'autres langues. Si cela n'avait pas été le cas, sans doute aurait-elle disparu il y a plusieurs siècles, comme cela s'est produit pour les autres langues qui étaient parlées il y a deux mille ans dans ce qui constitue actuellement l'Espagne et la France.

Foruak eta euskara (XVI-XIX. mendeak): foru erakundeak eta apologistak



Erdi Aroan euskarazko testigantzak ez ziren sobera ugariak izan. Honako hauek dira agiri zaharrenak: Donemiliaga Kukulako monasterioko dokumentu baten bazterretan idatziriko bi esaldi labur eta ulergaitz (X-XI. mendeetakoak), Donemiliagako Goldeak biltzen dituen toki-izenen zerrenda (XI. mendekoa), eta testu batzuetan ageri diren hitz solteak (Aymeric Picaud erromes frantsesaren *Codex Calixtinus* delakoan, XII. mendean, edo Nafarroako Foru Orokorean, XIII. mendean). Erdi Aro Beherean, lekukotasun horiek ugalduz joan ziren. Ezin zehaztu den garai batekoak, agian, XIV. eta XV. mendeetakoak, ahoz transmitituriko kantu epikoetako pasarteak dauzkagu. Gainera, beren interesagatik, Arnold von Harff Koloniako bidaiairiak bilduriko hiztegi laburra nabarmena da. Von Harff, 1496tik 1499ra bitarte, erromesaldi luze bat egin zuen. Erroma eta Jerusalem bisitatu zituen, besteak beste, eta Compostelaraino ailegatu zen. Euskal Herritik barna iraganean, bidaietako bere ohiturari eutsiz, *pascaysche sprach* edo euskal hizkuntzako hitzak idatzi zituen, alemanezko itzulpenarekin, adibidez,

24. *Uscal-Herrico Gasetta* (1848). Euskarak argitaraturiko lehen astekaria.

Coutumes et langue basque (XVIe-XIXe siècles) : institutions forales et apologistes

Le Moyen Âge n'a pas été spécialement prodigue en témoignages sur la langue basque. Deux phrases brèves, difficiles à comprendre, écrites dans les marges d'un document d'un monastère de San Millán de la Cogolla (Xe-Xle siècles), des listes de toponymes comme celle qui figure dans le document connu sous le nom de *Reja de San Millán* (Xle siècle), ainsi que certains mots épars retrouvés dans divers textes (parmi eux, le *Codex Calixtinus* du pèlerin français Aymeric Picaud au XIle siècle ou encore le *Fuero General de Navarra* au XIIIe siècle) constituent une bonne partie de la documentation la plus ancienne. Au cours du bas Moyen Âge, ces témoignages augmentent progressivement. Nous conservons des fragments de chants épiques transmis oralement, qui ne sont pas datés précisément, mais qui remontent peut-être, pour certains, aux XIVe et XVe siècles. En outre, certains glossaires courts se distinguent également par leur intérêt, à l'image de celui collecté par le voyageur Arnold von Harff, de Cologne, qui entre 1496 et 1499 réalise un long périple au cours duquel il visite des lieux comme Rome ou Jérusalem, et se rend à Saint Jacques de Compostelle. Lors de son passage par le Pays Basque, comme il le fit dans d'autres territoires, il note plusieurs mots qu'il appelle *pascaysche sprach* (langue basque) et qu'il traduit en allemand, comme *arduwa* (*wijn*) « vin », *gasta* (*keyss*) « fromage », ou encore *schambat* (*wat gilt dat*) « combien (coûte ceci) ? ».

Du point de vue de leur organisation politique, les territoires basques sont incorporés aux couronnes de Castille et de France entre les XIe et XVIIe siècle, mais en conservant leurs institutions au sein de ces deux monarchies. Ces institutions sont abolies en 1789, après le déclenchement de la Révolution française, pour ce qui est du Labourd, de la Soule et de la Basse-Navarre, et en 1876, après la Troisième Guerre Carliste, en Alava, Guipuscoa et Biscaye. Par application de la loi de 1841 (dénommée par la suite *Paccionada* ou « *Pactisée* »), la Navarre perd ses *Cortes* (*Gorteak* en basque) et sa Députation du Royaume, mais conserve son autonomie économique et fiscale.

Contrairement aux *usatges* catalans, rédigés en latin, mais rapidement traduits en catalan, les fors ou coutumes basques sont rédigés en roman navarrais (Navarre), en castillan (Alava, Biscaye et Guipuscoa), en gascon (Soule et Basse-Navarre) et en français (Labourd, traduit du gascon). Alors que le catalan se maintient en tant que langue administrative sous la Couronne d'Aragon jusqu'à l'abolition de ses institutions au début du XVIIIe siècle, l'usage de l'euskara par les institutions basques est très discret, pour ne pas dire infime.

Aujourd'hui nous sommes habitués à écrire dans la même langue que celle que nous parlons. Cependant, ce phénomène récent est lié aux campagnes d'alphabétisation des XIXe et XXe siècles. Sous l'Ancien Régime, il est très fréquent que la langue parlée ne coïncide pas avec la langue écrite. Par exemple, le latin est la langue administrative de l'Église catholique et des premiers états embryonnaires surgis au début du

arduwa (wijn) 'ardoa', gasta (keyss) 'gazta' edo schambat (wat gilt dat) 'zenbat (da)?'.

Antolamendu politikoari dagokionez, euskal herrialdeek Gaztelako eta Frantziako Koroekin bat egin zuten XII. mendetik XVII. mendera bitarte, baina bi monarkien barruan beren erakundeei eutsiz. Lapurdin, Zuberoan eta Baxenabarren, erakunde horiek 1789an ezeztatu ziren, Iraultza Frantsesa hasi berrian. 1876an, Hirugarren Karlistadaren ondoren, Arabakoak, Gipuzkoakoak eta Bizkaikoak ezeztatu ziren. Gero «Hitzartua» iritzi zion 1841eko Legearen bidez, Nafarroak Gortea eta Erresumako Diputazioa galdu zituen, baina bere autonomia mantendu zuen ekonomiari eta zerga bilketari dagokienez.

Kataluniako *usatge-ak latinez idatzi* ziren, baina laster katalanera itzuli ziren. Euskal Herriko foruak, ordea, Nafarroako erdaran (Nafarroakoa), gaztelaniaz (Arabakoa, Bizkaikoa eta Gipuzkoakoa), gaskoiz (Zuberoakoa eta Baxenabarreko) eta frantsesez (Lapurdikoa, gaskoitik itzulirik) idatziak daude. Katalanak, XVIII. mendearen hasieran erakundeak ezeztatu zituzten arte, Aragoiko Koroako hizkuntza administratiboa izaten segitu bazuen ere, euskal erakundeeek gutxi erabili zuten euskara, ia inoiz ez ez esateagatik.


Gaur egun, ohituak gaude hitz egiten dugun hizkuntza berean idazten. Hori, baina, fenomeno berri bat da, XIX. eta XX. mendeetako alfabetatzeko kanpainekein lotua dagoena. Antzinako Erregimenean, oso maiz, hitz egiten zen hizkuntza eta idazten zena ez ziren bat. Adibidez, latina Eliza Katolikoko eta Erdi Aroaren hasieran sorturiko lehen estatuernameinetako hizkuntza administratiboa zen, oso gutxi baziren ere aise mintzatzeko gai. Erdi Aro Beheretik aurrera, errromantzeak latinaren tokia hartuz joan ziren. Halaxe gertatu zen, adibidez, gaztelaniarekin eta frantsesarekin. Joana Albreteko Baxenabarren euskararen erabilera instituzionalizatzen saiatu bazen ere, latinarekiko alde genetiko eta egiturazko agian traba bat izan zen, euskarari inguruko hizkuntzen toki bera hartzea eragotzi ziona. Klase aberatsen utzikeria orokorra haren patuarekiko ere eragingarria izan zen.

Zehazki, XVI. eta XVII. mendeetan, Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako Batzar Nagusietako ahaldun izateko gaztelaniaz irakurtzen eta idazten jakin beharra zegoen nahitaez, euskaldun analfabetoek osaturiko gizarte batean (egia esan, ezbaien jartzen ahal da xedapen horiek zorrotz bete ote ziren inoiz, Euskal Herriko egoera soziolinguistique kontuan hartuz). Hobeki ikertza merezi badu ere, badirudi Baxenabarreko Estatuek gaskoia erabili zutela 1620 arte eta frantsesa orduz geroztik, eta deialdietan gaztelania erabili zela 1772 arte. Alegia, inoiz ez euskara. Baxenabarreko Estatu horiek Dominique Bidegarairi uko egin zioten diru-laguntza bere latin, frantses, euskara eta gaztelaniako hiztegi laukoitza argitaratzeko, 1675 eta 1676an. Lapurdiko Biltzarrak, XVIII. mendearen hasieran, ez zion laguntzarik eman nahi izan Joanes Etxeberri Sarakoari euskaratik abiaturik prestaturik zeukan latin-ikasbiderako. Gaztelaniaz jakin beharra Gorteetan eta Batzar Nagusietan populu xehearen partaidetza eragozteko modu bat izan zen, populu xeheak, maiz, euskaraaz besterik ez zuelako egiten. Hala ere, bitxia da, euskaldun elebakarrekiko bereizkeria indarrean zegoen bitartean, kargu publikoetan jardutea eragotzi baitzitzaien, oso literatura indartsu bat sortu zela (gehienbat gaztelaniaz, baina frantsesetxe ere bai), euskararen berezko balioak etengabe goraipatzen

Moyen Âge, bien que peu de personnes le parlent couramment. À partir du bas Moyen Âge, les langues romanes prennent progressivement le pas sur le latin. C'est le cas, par exemple, du castillan et du français. Malgré la tentative de Jeanne d'Albret d'institutionnaliser l'usage de l'euskara en Basse-Navarre, la distance génétique et structurale par rapport au latin empêche peut-être la langue basque d'occuper la même place que ses langues voisines. À cet égard, l'indifférence généralisée des classes nanties quant à son sort joue sans doute aussi un rôle déterminant.

Concrètement, au cours des XVI^e et XVII^e siècles, les Assemblées Générales (*Juntas Generales* en espagnol / *Batzar Nagusiak* en basque) du Guipuscoa, de Biscaye et d'Alava exigent de leurs membres de savoir lire et écrire la langue castillane dans une société majoritairement analphabète et bascophone (en réalité, on peut douter du fait que ces dispositions aient été rigoureusement appliquées, compte tenu de la situation sociolinguistique du pays). Bien que cet aspect soit à étudier plus en profondeur, il semblerait que les États de Basse-Navarre aient utilisé le gascon jusqu'en 1620, puis le français, et que les convocations à ces assemblées aient été rédigées en castillan jusqu'en 1772. Autrement dit, la langue basque n'est jamais utilisée. Ces mêmes États bas-navarrais refusent de subventionner le dictionnaire multilingue (latin, français, basque et castillan) de Dominique Bidegaray, en 1675 et 1676. L'Assemblée (*Bilçar*) du Labourd refuse également d'accorder une quelconque aide à la méthode d'apprentissage du latin à partir de l'euskara de Joannes Etxeberri, de Sare, au début du XVIII^e siècle. Exiger l'usage du castillan est une manière d'empêcher la participation des classes populaires, généralement monolingues basques, aux Cortes et aux Assemblées Générales. Curieusement, parallèlement à la discrimination des bascophones monolingues, empêchés d'occuper des charges publiques, on assiste à une importante production littéraire (surtout écrite en castillan, mais aussi en français) qui ne cesse d'encenser les valeurs intrinsèques de la langue basque. La plupart des apologistes de la langue basque, entre les XVI^e et XIX^e siècles, ne montrent pas un réel intérêt pour la conservation, et encore moins pour la diffusion de la langue basque. Celle-ci leur sert de prétexte pour défendre la spécificité institutionnelle basque et, indirectement, les priviléges de la classe qui en est la principale bénéficiaire.

Parmi les apologistes les plus remarquables, dont certains contribuent significativement aux études basques, le Biscayen Andrés de Poza (1530-1595) et le Guipuscoan Esteban de Garibay (1533-1599) défendent l'hypothèse selon laquelle l'euskara fut la langue commune à toute l'Espagne avant l'invasion romaine. Manuel de Larramendi (1690-1766), également originaire du Guipuscoa, auteur d'une grammaire basque et d'un dictionnaire trilingue (castillan, basque et latin) très influent à l'époque, crée de nombreux néologismes en langue basque (qu'il utilisera peu par la suite) pour différencier cette langue autant que possible du castillan, initiant ainsi une tradition puriste qui perdurera jusqu'à nos jours. Larramendi, ainsi que le Biscayen Pedro Pablo de Astarloa (1752-1806) et d'autres auteurs de l'époque affirment plus ou moins explicitement que la langue basque était la langue d'Adam et Ève, des anges et de Dieu lui-même. Tous ces auteurs contribuent à créer une identité basque différenciée, et même opposée à l'identité espagnole et à l'identité française. Astarloa exercera ainsi une influence directe sur les idées linguistiques de Sabino Arana Goiri (1865-1903), fondateur du Parti Nationaliste Basque.



25

zituena. XVI. mendetik XIX. mendera bitarteko apologista gehienek ez zuten egiazko interesik euskararen iraupenean eta are gutxiago haren zabalgunean, baina euskarak aitzakiatako balio zien Euskal Herriko erakunde bereziak eta, zeharka, erakunde horien onura gehiena hartzen zuen klasearen pribilegioak defenditzeko.

Apologista entzutetsuenen artean (haietako zenbaitek euskal ikerketei ekarpen nabarmena egin zieten), Andres de Poza (1530-1595) bizkaitarra eta Esteban Garibai (1533-1599) gipuzkoarra aipatu behar dira. Biek, euskara, erramatarrak baino lehen, Espainia osoan mintzatzen zelako hipotesiaren alde egin zuten. Manuel Larramendik (1690-1766), hori ere gipuzkoarra, euskal gramatika baten eta bere garaian eragin handia izan zuen gaztelania, euskara eta latineko hitzegi hirukoitz baten egileak, euskara gaztelaniatik ahalik eta gehien bereizteko neologismo asko sortu zituen (gero erabili ohi ez zituenak) eta horrela gaur egun arte iraun duen tradizio garbizale bati ekin zion. Larramendik berak, Pedro

25. Sabino Arana (1865-1903). Euzko Alderdi Jeltzalearen sortzailea.

26. Lapurdik
Frantziako Estatu
Orokoretara igorritako
diputatuendako
jarraibidea, euskarak
eta frantsesez (1789).

- 25.** Sabino Arana (1865-1903). Fondateur du Parti Nationaliste Basque.
26. Instructions destinées aux députés envoyés par le Labourd aux États Généraux de France, redigées en basque et en français (1789).

Il convient de mentionner quelques exceptions à l'abandon institutionnel de l'euskara. Il a déjà été fait allusion à la reine de Basse-Navarre, la protestante Jeanne d'Albret qui, en 1571, ordonne la traduction du Nouveau Testament dans la langue de la majorité de ses sujets. La tâche est confiée au Labourdin Jean de Liçarrague. Il est possible que l'échec du protestantisme, qui s'efforce de maintenir les langues vernaculaires, face au catholicisme qui continue à parler sur le latin, ait interrompu la diffusion de la langue basque comme langue administrative. Nous ne le saurons jamais. Par ailleurs, nous disposons de documents qui démontrent que le *Bilçar* du Labourd, qui représente une bourgeoisie naissante qui parle et écrit en basque, fonctionne en *euskara*. Ce n'est pas un hasard si les meilleurs écrivains basques de l'époque proviennent de cette région. Mais cette classe instruite du Labourd est déjà décadente en 1789, soit du fait de la perte de Terre-Neuve, soit en raison de la disparition de la baleine du Golfe de Gascogne, soit encore à cause du processus de nationalisation française. D'autre part, à partir du début du XIXe siècle, nous savons que la langue basque est utilisée, à l'oral comme à l'écrit, à l'Assemblée Générale de Biscaye, contrairement aux règles établies au cours des siècles précédents. Déjà à la veille de l'abolition des fors (1876), on constate également un certain intérêt de la part des institutions guipuscoanes, souvent contrôlées, comme leurs homologues biscayennes, par les Carlistes, pour la préservation de la langue basque. Dans certains cas, elles vont même jusqu'à exiger la connaissance de cette langue pour accéder à des emplois publics.

CAHIER des vœux et des instructions des Basques-Français du Labourt, pour leurs Députés aux Etats-généraux de la Nation.

Pénétrés du plus profond respect et de la plus vive reconnaissance pour les grandes vues de justice et de bienfaisance qui ont déterminé leur Souverain à convoquer les Etats-généraux de son Royaume, les Basques-Français du Labourt ses fidèles Sujets, les seconderont autant qu'il leur sera possible, par les vœux que leurs Députés seront chargés d'y faire entendre.

Un Roi qui aime plus la vertu que l'autorité, douze cons Représentants choisis dans une des Nations les plus éclairées de la terre, un Ministre qui n'a pour politique que les grandes vues du génie; voilà quels seront les grands coopérateurs de la régénération d'un vaste Empire : quels motifs d'espérer que nous allons laisser à nos descendants un sort plus heureux que celui que nous avons reçu de nos pères !

Les vœux des Basques-Français s'arrêteront d'abord sur la Constitution nationale, sur les Finances du Royaume, et sur l'Administration de la justice.

Ce ne sera qu'après avoir présenté leurs idées sur les ob-

LAPHURTAR Escaldun Francesec, Erresumako Estatu-generaletarat egortzen dituzten Deputatuei, emaiten diotzen botuen eta instrucciones, Cayera.

EAGUTXARIC biciarenak eta errespetuare samurrenarekin, ikusten dute Laphurtar Escaldun Francesec, justicialeko eta ontasuneko motiborio handienc elkarri dutela biesen Soberanoa edo Erregua here Erresumako Estatu-generaleko hiltzerat, eta sujel-leihal diren begala, ensayatueko dire, ahal begamatz, objektu handi horien harren lagunearter, Estatu-generalean adiarazteaz here Deputatuea argatu dituzten bolnez.

Bohera baino, berihutea maiteago duen Erreguek hat, luraren gainean diren Nacioneric arguitueneatik batetan beresiko diren hamabi eluhu Deputatu, Ministro bat ceinac eta baita bertsie chederik, izpiritu handi, on eta justu batet Erresumaren corionarenak, emaiten diotzen sentimenduak baiuscio; horra nor iganen diren eargatua Franciari biei herra, puchant eta justugao batet emaitzeaz. Combet arrazoi esparrantza igatzeo utzico diotegula gure ondoceoi gure aintzinagoen-ganik errechituta dugun baino sorthe dohatsuago!

Escaldun Francesen botuan iganen dire Iberiar Nacionearren Constitucionaren, Erresumako Tresoren, eta Justiziaren partitorean gainean.

Objektu handi eta important horietaz mintzatu ondoan bai-

Pablo Astarloa (1752-1806) bizkaitarrak eta garai hartako beste idazle batzuek zeharka edo zuzenean adierazi zuten euskara Adan eta Ebaren, aingeruen eta Jainkoaren berberaren hizkuntza zela. Egile horiek guztiak lagundu zuten euskal nortasun berezi bat sortzen, nortasun español eta frantsesetik bereizia eta, batzuetan, horiei aurka egiten ziena. Izen ere, Astarloak zuzeneko eragina izan zuen Sabino Arana Goiri (1865-1903) Euzko Alderdi Jeltzalearen sortzailearen ideia linguistikoetan.

Erakundeen euskararekiko utzikeriaren salbuespen batzuk aipatzea bidezkoa da. Joana Albretekoaz, Baxenabarreko erregina protestanteaz, mintzatu gara jadanik. 1571n Testamento Berria bere manupeko gehienetan hizkuntzara itzultzeko agindua eman zuen. Joanes Leizarraga lapurtarrak ondu zuen itzulpen hori. Protestantismoak, herri hizkuntzak lantzen saiatu zenak, ez zuen bide egin, katolizismoa, latinaren alde apustu egiten segitzen zuena, gailendu baitzitzaoion. Horrek, beharbada, eten egin zuen euskara hizkuntza administratiboa bihurtzeko bidea. Ez dugu inoiz jakinen. Halaber, baditugu dokumentu batzuk, Lapurdiko Biltzarra, euskaraz hitz egin eta idazten zuen burgesia txiki bat ordezten zuena, euskaraz aritu ohi zela frogatzen dutenak. Ez da kasualitatea, garai hartako euskarazko idazlerik hoberenak herrialde horretakoak izatea. Baino, lapurtar klase ikasi hori, Ternuaren galeragatik, balea Bizkaiko Golkoan akabatzeagatik edo frantses nazionalizazioagatik beragatik, maldan behera zihoan 1789rako. Bestalde, badakigu, XIX. mendearren hasieratik aurrera, Bizkaiko Batzar Nagusietan euskara hitz egin eta idazten zela, aurreko mendeetako arauen kontra. Foruak ezeztatu (1876) baino lehentxeago, Gipuzkoako erakundeen euskararekiko interesa ere sumatzen dugu. Gipuzkoako erakundeek, Bizkaikoak bezala maiz karlistek kontrolatuek, euskaraz jakitea eskatu zuten zenbait lanpostu publikotarako.

Urte horiek baino lehen, euskararen erabilera administratiboa udal batzuetara eta Estatuko xedapenen itzulpenetara (adibidez, Ipar Euskal Herrian, agintari iraultzaile frantsesen aginduetara) mugaturik egon zen. Dozenaka euskarazko udal dokumentu ezagutzen ditugu, baina, foru erakundeek, hots, Gorteek, Batzarrek eta Diputazioek sortuak askoz gutxiago dira. Antso Jakituna erregeren garaiko dokumentu batean (1167koan), euskarari *lingua Navarrorum* deritzo, baina Nafarroako Erresumako Gorteen edo Diputazioaren ofizio bakar bat ere ez dago hizkuntza horretan idatzirik. Gaztelaren aldetiko anexioak (1515) ez zion funtsezko aldaketarik ekarri euskararen egoerari Nafarroan.

XVIII. mendetik aurrera, euskararen erabilera oztopatzeko Espainiako Koroaren lehen saioak dokumentatzen dira. Adibidez, 1766an, Arandako kondeak Kardaberazek Loiolako Inazioen bizitzari buruz idatziriko euskarazko lan bat debekatu zuen. Euskarazko literaturako lanik hoberenetako bat, *Peru Abarka*, Juan Antonio Mogeles 1802an idatzia, ezin izan zen 1881 arte argitaratu. XVIII. eta XIX. mendeetan hain zuzen ere nabarmendu da euskararen galera, lehenago Araban eta berehala Nafarroan. Beste bost probintzietan, aldiz, euskarak ez zuen lurraderik galdu XX. mendea arte, hiri batzuetan izan ezik.

Auparavant, l'usage administratif de l'euskara se limitait à certaines municipalités et à des traductions de dispositions émanant du pouvoir central, comme les ordres des autorités révolutionnaires françaises dans la partie continentale du pays. Nous avons connaissance de dizaines de documents municipaux rédigés en langue basque, mais le nombre de ceux qui émanent des institutions forales, autrement dit des Cortes, Assemblées et Députations, est bien plus réduit. Dans un document datant du règne de Sanche le Sage (1167), la langue basque est désignée par le nom de *lingua Navarrorum*, mais aucun document des Cortes ou de la Députation du Royaume de Navarre n'est rédigé dans cette langue. Par conséquent, l'annexion par la Castille (1515) ne suppose pas un changement notable dans le statut de l'euskara en Navarre.

C'est à partir du XVIIIe siècle que transparaissent les premières tentatives de la Couronne espagnole de faire obstacle à l'usage de la langue basque. Ainsi, en 1766, le Comte d'Aranda interdit un ouvrage en euskara de Cardaveraz sur la vie d'Ignace de Loyola. De même, il faudra attendre 1881 pour que la publication de l'une des principales œuvres de la littérature basque, *Peru Abarca*, de Juan Antonio Moguel, écrite en 1802, soit autorisée. C'est précisément au cours des XVIIIe et XIXe siècles que la perte de territoire de la langue basque devient évidente, tout d'abord en Alava, puis en Navarre. Dans les cinq autres provinces, en revanche, on ne constate pas de pertes territoriales jusqu'au XXe siècle, à l'exception de certaines zones urbaines.

Euskal Pizkundea

XIX. mendearren bigarren erdian, Europaren hego-mendebalean, berezko hizkuntza Estatukoa ez beste daukaten lurrardeetan, mugimendu literario bana sortu ziren, gehiegikeria eta nahiketia handi samarraz «birjaiotzeak» deitu izan direnak. Honako hauek dira: *Felibritge* Okzitanian, *Renaixença* Herrialde Katalanetan, *Rexurdimento* Galizian eta *Pizkundea* Euskal Herrian. Baten batek huts egin zuen bere mintzairaz berpizteko ahaleginetan. Eta denak Espainia eta Frantziaren eraikuntza nazionalaren prozesuen barruan gertatu ziren, ez haien kontra.

«Euskal Pizkundea» Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foruen ezeptatzetik (1876tik) Espainiako azken Gerra Zibilaren hastapenera (1936ra) bitarte kokatu ohi da. Kontzeptua bera eztabaidegarria den arren, zentzu handiagoa izan lezake Pizkundearen hasiera 1851ean jartzeak. Izen ere, urte horretan, Anton Abadia-Ürrüstoi zuberotar mezenasak sustaturik, «Koplarien Guduak» edo Lore Jokoak ospatzen hasi ziren, lehenik Lapurdin, gero beste euskal probintzietan. Jokoei esker, euskarak nolabaiteko tokia irabazi zuen plazan. 1879tik aitzina mugaz bi aldeetan gertatu ziren. Abadia-Ürrüstoik 1851n Ipar Euskal Herrian abiarazi zituen Lore Jokoak euskara hutsezkoak ziren eta halakoxeak izaten segitu zuten Hego Euskal Herrian 1879tik aitzina. Hala ere, Pirinioez hegoaldean beste lehiaketa batzuk antolatu ziren. Horiek, Donostiako Udalarenak izan ezik, elebidunak izaten ziren, baita euskaldun elebakarrak nagusi ziren herriean ere.

Pizkundeak, berez, bi fenomeno diferente biltzen ditu bere baitan, elkarrekin zerikusi handirik ez dutenak. Alde batetik, Lore Jokoien inguruan sorturiko euskarazko literatura. Koplarien Guduak, ustez apolitikoak ziren, baina, euskal gizartearren oso ikuspegi tradizional eta konfesionala ematen zuten, errepublikanoen erreakzioa piztu zutelarik, beren jokoak antolatu baitzitzuten. Bestetik, literatura foruzale berria, gehienbat gaztelaniaz idatzia, agitazio politikorako borondate gardena ezkutatzen ez zuena, nahiz eta lerratuago egon moderantismora (liberalismo kontserbadorera) karlismora baino. Tradizio horietako lehena Ipar Euskal Herrian ageri da bereziki. Bigarrena, Hego Euskal Herrian. Lehen abertzetasuna bigarren tradizioaren oinordeko da. Hego Euskal Herriko abertzetasun politikoak eta Ipar Euskal Herriko euskaltzaletasun apolitikoak 1960ko hamarkadan bat egin zuten, eta neurri batean bakarrik.

Lore Jokoien aurrekari urruna Okzitanian datza, non 1324az geroztik jazo baitziren, bertako hizkuntzan hasieran, frantsesetik 1519az geroztik. Antzeko ekitaldiak Espainia-Frantziako beste hizkuntza batzueta gertatu ziren, ez bakarrik eremu urrikoetan: Espainian «berrezarri» ziren lehen Lore Jokoak Madrilgoak izan ziren, 1841ean. XIX. mendean Andaluzian, Murtzian, Gatzela Zaharrean, Aragoin, Asturietan eta Extremaduran behintzat izan ziren Lore Jokoak, denak gaztelania hutsez (1883an Oviedokoak izan ezik). Katalunian 1859tik aitzina gertatu ziren (katalan hutsez), Galizian 1861etik aitzina (galegoz eta gaztelaniaz) eta Valentzian 1879tik aitzina (katalanez eta gaztelaniaz). Okzitanian, 1862tik aitzina, berezko mintzairan izan ziren berriro. XX. mendean Espainiako ia eskualde guztieta zabaldu ziren Lore Jokoak eta,

‘Euskal Pizkundea’

Durant la deuxième moitié du XIX^e siècle, sur les territoires du sud-ouest européen disposant d'une langue propre différente de celle de l'État, il se produisit des mouvements littéraires tels, qu'on les appela, avec une certaine dose de solennité et d'exagération, « renaissances ». Il s'agit du *Felibritge* en Occitanie, de la *Renaixença* dans les pays de langue catalane, du *Rexurdimento* en Galice et du *Pizkunde* au Pays Basque. Si toutes ces tentatives de revitalisation linguistique ne furent pas couronnées de succès, toutes se produisirent au sein des processus de construction nationale d'Espagne et de France, et non contre eux.

Le *Pizkunde* ou « Renaissance basque » est généralement situé entre ce qu'on appelle l'abolition forale en Alava, Guipuscoa et Biscaye (1876) et le début de la Guerre Civile espagnole (1936). Toutes précautions gardées, il conviendrait mieux de situer son début en 1851, année de la première édition des Jeux Floraux (*Koplarien Guduak*, littéralement « Combats de Poètes »), organisés à l'initiative du mécène souletin Antoine d'Abbadie d'Arrast, d'abord au Labourd, puis dans les autres provinces basques. Grâce à ces jeux, la langue basque acquit davantage de présence dans le domaine public. À partir de 1879, ils furent organisés des deux côtés de la frontière franco-espagnole. Les Jeux Floraux organisés par Abbadie au Pays Basque français à partir de 1851 se déroulaient exclusivement en langue basque, et il en fut de même au Pays Basque espagnol à partir de 1879. En revanche, au sud des Pyrénées, d'autres concours étaient organisés, qui, à l'exception de ceux de la Mairie de Saint-Sébastien, utilisaient à la fois le basque et l'espagnol, y compris dans les zones dont le pourcentage de bascophones monolingues était important.

Le *Pizkunde* englobe en réalité deux phénomènes différents et assez éloignés. D'une part, la littérature basque issue des Jeux Floraux, prétendument apolitiques, mais qui laissaient transparaître une vision très traditionnelle et confessionnelle de la société basque, au point de provoquer la réaction des républicains, qui organisèrent des jeux alternatifs. D'autre part, la littérature néo-foraliste (en faveur des fors ou du droit coutumier), essentiellement en castillan, affichant une volonté d'agitation politique évidente, bien que plus orientée vers le libéralisme conservateur modéré que vers le Carlisme. La première de ces traditions se manifeste spécialement au Pays Basque français ; la seconde, au Pays Basque espagnol. Le nationalisme basque des débuts est héritier de la seconde tradition. La fusion entre le nationalisme politique du Sud et le culturalisme apolitique du Nord ne se produira que dans les années 1960, et encore, partiellement.

L'ancêtre lointain des Jeux Floraux se trouve en Occitanie, où ils eurent lieu dès 1324, d'abord en langue autochtone, puis en français, à partir de 1519. Il s'agit d'un phénomène commun à plusieurs langues d'Espagne et France, et pas seulement aux langues minoritaires : les premiers jeux qui furent « rétablis » en Espagne eurent lieu à Madrid en 1841. Au XIX^e siècle, des Jeux Floraux furent organisés au moins en Andalousie, à Murcie, en Vieille-Castille, en Aragon, aux Asturies et en Estrémadure, toujours exclusivement en castillan (hormis ceux d'Oviedo en 1883). Ils furent organisés en Catalogne à partir de 1859 (monolingues en catalan), en Galice à partir de 1861 (en galicien et castillan) et à Valence à partir de 1879 (en catalan et castillan). En Occitane, ils furent à nouveau organisés dans la langue locale à partir de 1862. Au XX^e siècle, les Jeux Floraux

Languedoceko Tolosako lehen jokoaren mendeurrenena zela medio (1924), baita Frantziakoetara ere. Abadia-Ürrüstoi Euskal Herrian jokoak antolatzen hasi baino lehen, beste zuberotar batek, Agosti Xahok, *Uscal-Herrico Gasetta*-ren bi ale argitaratuak zituen, 1848an, lehen euskarazko aldizkaria sortzeko ahaleginetan. Azaleko begiratu batek bide eman lezake pentsatzeko hizkuntza berreskuratzeko prozesua bateratsu gertatu zela Euskal Herrian eta Katalunian, adibidez. Efektu optiko bat besterik ez litzateke. Lore Jokoek katalanaren estatusaren jasotzean eragin nabarmena izan bazuten ere, euskararenean izanikoa hutsaren hurrengoa izan zen, Euskal Herriko Lore Jokoak folklore hutsaren adibideak izaten zirelako eta, euskalkiekin tematurik zeudenez, ez zutelako akuilutako balio izan kalitateko literatura sortzeko (salbuespen nabarmenena Joan-Baptista Elizanburu lapurtarra izan zen), ez eta hizkuntza literario baten oinarria ezartzeko ere. Erraza da differentzia hau ulertzen. XIX. mendean katalanezko Lore Jokoaren egoitzak Bartzelona eta Valentzia izan ziren. Euskarazko jokoaren egoitza nagusiak, Urruña eta Sara, Lapurdin, ikuspegi demografiko batetik ezin dira ez eta hurrik eman ere haietan konparatu. *Jocs Florals* direlakoetan hirietako klaseak eragingarriak izan ziren. Koplarien Guduek, aldiz, indartu egin zuten euskara eta baserria lotzen zituen irudia eta inplizituki adierazi euskarak ez zuela bizitza modernorako balio. Hala ere, Koplarien Guduei esker Louis-Lucien Bonaparteren ortografia Euskal Herri osoan zabaldu zen eta estatus gaindiko euskaldun kontzientzia piztu zen, euskaran oinarritua, lehenbizikoz Donibane Lohizuneko Koplarien Gudueta, 1892an, dokumentatzen den *Zazpiak Bat* goiburua inguruan.

Hego Euskal Herriko literatura foruzale berria eta nazionalista, horren ondorengoa dena, biak gehienbat gaztelaniar idatziak, XVI., XVII. eta XVIII. mendeetako eta XIX. mendearen lehen erdiko euskararen aldeko tradizio apoletikoaren jarraipenak dira, ez euskarazko literatura jatorrarenak (Sabino Aranak, nazionalismo politikoaren sortzaileak, ez zuen ezagutzen ere Axular, XX. mendea arte izan zen idazlerik hoberena, eta hasiera batean Koplarien Guduena kontra zegoen). Mugimendu horretako egileek, gehienak oso kaxkarrak baziren ere, lagundu egin zuten Euskal Herrian nortasun berezi bat zabaltzen, azken buruan, euskara berraurkitu eta lantzeko balioko zuena, bereziki XX. mendeko hirugarren hamarkadatik aurrera, Primo de Riveraren diktaduran eta Espainiako Bigarren Errepublikan, hain zuzen ere.

la lege historiko bat da nazionalismo politikoa lehenagoko nazionalismo kultural batetik abiatzea. Halaxe gertatu zen, adibidez, Katalunian eta Galizian. Euskal Herrian, ordea, Koplarien Guduena berezko oinordekoak, Euskaltzaleen Biltzarra (1902), ez zuen inolako eraginik izan gizartean, Hego Euskal Herrikoan behintzat. Sabindar nazionalismo politikoaren hedapena nazionalismo kultural hutsak Hego Euskal Herrikoan izan zuen porrotaren arrazoiak bat da. Horregatik, lau hegotar herrialdeetan, aldarrikapen kulturalak, neurri handi batean, aldarrikapen politikoaren ondorengoa dira eta, beste neurri handi batean ere, horien menpekoak. Hori hala gertatu zen, nazionalismo politikoa erdaldunek sortu zutelako, XIX. mendearen bukaeran. Euskaldunak geroago abertzaletu ziren tropelka. Abertzetasunak proposaturiko hizkuntza eredu bera ezinezkoa zen haren garbizalekeriagatik. 1960ko hamarkada arte ez zen egiazko euskaratik eta tradizio literariotik hurbilago egonen zen beste eredu bat zabaldu.

s'étendirent dans pratiquement toutes les régions d'Espagne, et même en France, à l'occasion du sixième centenaire des premiers jeux de Toulouse (1924). Avant même qu'Abbadie d'Arrast n'organise les premiers jeux du Pays Basque, un autre Souletin, Augustin Chaho, édita en 1848 deux numéros de *Uscal-Herrico Gasetta*, la première expérience de journal périodique en langue basque. Cela pourrait laisser penser que le processus de récupération linguistique se déroula parallèlement au Pays Basque et en Catalogne, mais en réalité ce ne fut pas le cas. Si les Jeux Floraux eurent une influence non négligeable sur l'élévation du statut de la langue catalane, leur impact sur celui de la langue basque fut pratiquement nul : le fait que les jeux basques aient été circonscrits à leur aspect le plus folklorique et obstinément attachés aux dialectes ne contribua pas à créer une littérature de qualité (à quelques exceptions près, dont la plus remarquable est le Labourdin Jean-Baptiste Elissamburu), ni même à établir les rudiments d'une langue littéraire commune. Cette différence s'explique très simplement. Il suffit de comparer le poids démographique de Barcelone et Valence, qui accueillirent les jeux en langue catalane au XIXe siècle, à celui d'Urrugne ou de Sare, au Labourd, sièges principaux des jeux en langue basque. La participation des classes urbaines aux *Jocs Florals* fut décisive. Les *Koplarien Guduak*, au contraire, accentuèrent l'identification de la langue basque au monde rural, ce qui indiquait implicitement qu'elle n'était pas apte à la vie moderne. Cependant, il faut reconnaître que les *Koplarien Guduak* contribuèrent à diffuser l'orthographe de Louis-Lucien Bonaparte dans l'ensemble du Pays Basque et qu'ils posèrent les bases d'une conscience basque supra-étatique, fondée sur la langue, dont la représentation est le slogan *Zazpiak Bat* (« les sept [provinces basques] font une »), documenté pour la première fois aux jeux de Saint-Jean-de-Luz en 1892.

La littérature néo-foraliste du Pays Basque espagnol et la littérature nationaliste qui lui emboîte le pas, toutes deux écrits majoritairement en castillan, s'inscrivent dans le prolongement de la tradition apologétique de la langue basque des XVIe, XVIIe et XVIIIe siècles et de la première moitié du XIXe, et non de l'authentique littérature basque (Sabino Arana, fondateur du nationalisme politique, ignorait l'existence d'Axular, le meilleur écrivain jusqu'à l'époque moderne, et se positionna dans un premier temps contre les Jeux Floraux). Malgré la médiocrité généralisée des auteurs de cette tendance, ils contribuèrent à diffuser dans le pays une identité basque différenciée qui servira par la suite à la redécouverte et la préservation de l'euskara, notamment à partir de la troisième décennie du XXe siècle, coïncidant avec la dictature de Primo de Rivera et la Deuxième République espagnole.

Le fait que le nationalisme politique s'implante sur un nationalisme culturel préalable relève quasiment d'une loi historique. C'est ce qui se produit, par exemple, en Catalogne et en Galice. Au Pays Basque, en revanche, l'héritier naturel des Jeux Floraux, *Euskaltzaleen Biltzarra* (Association des Bascophiles, 1902) n'a guère d'influence sur la société basque, du moins dans la partie espagnole du pays. La diffusion du nationalisme politique sabinien est l'un des facteurs qui expliquent l'échec du nationalisme exclusivement culturel dans le Pays Basque méridional. Pour cette même raison, dans ses quatre provinces, les revendications culturelles sont, dans une large mesure, postérieures aux revendications politiques et leur sont aussi grandement assujetties. Il s'agit là de la conséquence du fait que le nationalisme politique basque ait été créé par des hispanophones à la fin du XIXe siècle. Il n'intègrera massivement les baskophones que plus tard. Le purisme extrême du modèle de langue proposé par le nationalisme politique le rend non-viable. Jusqu'aux années 1960, il n'y eut aucune autre proposition de modèle, plus proche du basque réel et de la tradition littéraire.

XX. eta XXI. mendeak

Frantziaren eta Espainiaren eraikuntza nazionaleko prozesuek baldintzatu dituzte euskararen bizia eta gaztelania eta frantsesarekiko harremanak azken bi mendeetan. Haien aurka, beste nazio bat gorputzeko saioa izan da: euskal nazioa, hain zuen ere. Berezko hizkuntzaren egitekoa anbigu samarra da abertzetasunean. Izen ere, diskurso teorikoa handi-mandia bada ere, errealitate soziolinguistikoak behartzen du askoz pragmatikoagoa den jarrera bat hartzen.

Honaino ailegaturik, Frantziaren eta Espainiaren nazionalizazio prozesuen artean eta, beraz, Euskal Herriaren bi aldeen artean, dagoen funtsezko differentzia aipatu behar da. Frantzia iraultza arrakastatsu baten obra da. Hamarkada askotan, aurrerakoia eta frantsesa sinonimoak izan ziren. Ipar euskaldunen nortasunak, erakunderik gabe, kutsu klerikal eta abarkadun bat hartu zuen XIX. mendean, azken buruan, haren iraupenerako bererako oso kaltegarria izan dena. Hego Euskal Herrian ere gertatu zen identifikazio bat kleroaren eta euskalduntasunaren artean (karlismoa besterik ez da gogoratu behar, mende eta erdiz euskaldunen bizitza baldintzatu zuena), baina Gerra Zibilak eta horren ondorengo diktadurak aukera eman zioten madarikazio hori hausteko eta euskal nortasuna frankismoaren kontrako erresistentziaren eragile bat bezala aurkezteko. Ipar Euskal Herrian ez bezala, Hego Euskal Herrian aurrerakoia eta euskalduna sinonimoak izan ziren hirurogeiko hamarkadatik aurrera, orduantxe sortu baitzen ezkerreko abertzetasuna.

Nazionalismo frantsesa eta espainola 1789ko iraultzaren oinordekoak dira (gehiago hura hau baino) eta «nazio bat, hizkuntza bat» dogma praktikara eramatzen saiatu ziren. Euskal nazionalismo politikoa, neurri batean, Estatu español zentralizatuak buruturiko homogeneizazio instituzional eta kulturalaren kontrako erreakzio bat da eta oso berandu kokatu zen Ipar Euskal Herrian, gutxiengo txiki batean, gainera.

Egia esan, Iraultza Frantsesa homogeneizazio linguistikoaren prozesu luzean beste urrats bat izan zen. XVI. mendean hasita (Villers-Cotterêts-eko Ordenantza, 1539), Lehen Mundu Gerran indartu eta azken hamarkadetako industrializazioarekin (edo, hobe, turistikazioarekin) bukatu zen. Ipar Euskal Herrian, II. urteko berolisaren 2ko (1794ko uztailaren 20ko) Dekretuak (frantsesa ez beste hizkuntza guztiak debekatu zituenak) baino askoz eragin handiagoa izan zuten Ferryk eta Gobletek 6 urtetik 13 urtera bitarteko haurrentzat eskola nahitaezko, doako, laiko eta, gehienbat, frantsesekoa sortzeko bultzaturiko legeek (1881-1886).

Hego Euskal Herrian, alfabetatzea (gaztelaniaz) klase aberatsentzat erreserbaturiko pribilegio bat izan zen hasiera batean, klase horiek baitziren sortzen ari zen hezkuntza sisteman sartzeko aukera zuten bakarrak. XVIII. mendetik aurrera euskararen erabilera eratzunaren bidez zigortu izan da eskoletan (euskaraz hitz egiten harrapatzen zuten ikaslea eratzun estigmatizatzaile bat eramatera behartzen zuten). 1969an oraindik Nafarroan erabiltzen zen eratzuna. Moyano legeak (1857tik 1970era bitarte indarrean egon zenak) nahitaezko lehen hezkuntza eta gaztelaniazko gramatikaren irakaskuntza ezarri zituen Espainia osoan. Baina, ordurako, Nafarroako erakundeek hamarkadak eginak zituzten gaztelaniazko nahitaezko irakaskuntza bultzatzen.

XXe et XXIe siècles

La vie de l'euskara et sa relation avec le castillan et le français au cours des deux derniers siècles sont déterminées par les processus de construction nationale de la France et de l'Espagne, face auxquelles une nation alternative, la nation basque, tente de se constituer. Le rôle de la langue spécifique dans le nationalisme politique basque est assez ambigu. En effet, si le discours théorique est très ambitieux, la réalité sociolinguistique l'oblige à adopter une attitude beaucoup plus pragmatique.

À ce stade, il convient de mentionner une différence fondamentale entre les processus de nationalisation qui se déroulent en France et en Espagne, et par conséquent, entre les deux versants du Pays Basque. La France est le résultat d'une révolution réussie. Durant des décennies, les termes « progressiste » et « français » demeurent synonymes. L'identité basque française, privée d'institutions propres, prend au XIXe siècle une dimension cléricale et rurale qui, finalement, s'avère fatale pour sa propre survie. Au Pays Basque espagnol, il existe également une identification entre le cléricalisme et la culture basque (il suffit de penser au Carlisme, qui a déterminé la vie du pays un siècle et demi durant), mais la Guerre Civile et la dictature qui s'ensuit offrent l'opportunité de rompre cette malédiction en présentant l'identité basque comme un élément de résistance au franquisme. Contrairement à la partie française du pays, dans la partie péninsulaire, les termes « progressiste » et « basque » peuvent être considérés comme synonymes à partir des années 1960 et coïncident avec l'émergence d'un nationalisme de gauche.

Les nationalismes français et espagnol, tous deux héritiers de la Révolution de 1789 (le premier davantage que le second, naturellement), s'efforcent d'appliquer le dogme suivant : « une nation, une langue ». Le nationalisme politique basque est, dans une certaine mesure, une réaction à l'homogénéisation institutionnelle et culturelle pratiquée par l'État espagnol

27. Certains des fondateurs de l'Académie de la Langue Basque : Pierre Broussain, Luis Eleizalde, José Agerre, Resurrección María de Azkue, Julio de Urquijo, Pierre Lhante et Txomin Agirre.

27. Euskaltzaindiaren zenbait sortzaile: Piarres Broussain, Luis Eleizalde, José Agerre, Resurrección María de Azkue, Julio Urkixo, Pierre Lhante eta Txomin Agirre.



Hala ere, erlatibizatu egin behar da hezkuntza sistemak euskararen ahultzean izaniko eragina. 1860an, Hego Euskal Herriko bizilagunen ehuneko 63 analfabetoak ziren eta 1930ean ehuneko 27 ziren oraindik. Horrek frogatzen du sistemak toki guztietatik huts egiten zuela. Estatuaren ezgaitasunak berak esplikatzen du euskal herritar askoren eskolatzerik eza. Euskararen galera erlatiboan, eskola baino eragingarriagoak izan ziren agian, alde batetik, komunikazioen hobekuntza, mugikortasuna erraztu zuena (Espainiako beste eskualde batzueta rako, Ameriketarako eta Filipinetarako emigrazioa eta erdalduen askoren immigrazioa) eta, bestetik, nahitaezko soldadutz, urte batzuk iraun ohi zuena. Antzinako Erregimenean, gizartearen estamentu-egiturak berak lagundua zion euskararen iraupenari, nahiz eta beti gaztelaniaren azpitik, egoera erabat diglosiko batean. Mentalitate burgesak bere duen diskurso berdintzailea agertzean, gaztelania/euskara bereizketak bere zentzia galdu zuen toki askotan eta horrek kalte egin zion hizkuntzari.

1914an, Kataluniako Mankomunitatea osatu zen. Lehenbizikoz, 1833an probintziak behin betikoz sortu zirenez geroztik, Estatu espanyolak Bartzelona, Tarragona, Lleida eta Gironaren arteko loturak onartu zituen. 1917an, Arabako eta, bereziki, Gipuzkoako eta Bizkaiko Diputazioek



28. Elbira Zipitria
(1906-1982).

28

centralisé, et il ne s'implante dans la partie française du pays que tardivement et de manière minoritaire.

En réalité, la Révolution française représente un épisode supplémentaire du long processus d'homogénéisation linguistique. Entamé au XVIIe siècle (Ordonnance de Villers-Cotterêts, 1539), il s'intensifie avec la Première Guerre Mondiale et ne culmine qu'avec l'industrialisation (ou, plus encore, avec l'émergence du secteur tertiaire) des dernières décennies. Au Pays Basque Nord, le Décret du 2 Thermidor de l'an II (20 juillet 1794) interdit toutes les langues autres que le français. Beaucoup plus influentes, les lois promulguées par Jules Ferry et René Goblet (1881-1886), établissent la création d'une école primaire obligatoire, gratuite, laïque et, surtout, en langue française, pour les enfants de 6 à 13 ans.

Au Pays Basque Sud, l'alphabétisation (en castillan) est, à l'origine, un privilège réservé aux classes nanties, qui sont les seules à avoir accès au système éducatif naissant. Des documents attestent dès le XVIIIe siècle du recours à un anneau qui sanctionnait l'usage de la langue basque dans les écoles (les élèves surpris en train de parler en basque étaient punis et contraints de porter un anneau stigmatisant). En 1969, il est encore utilisé en Navarre. La loi Moyano (en vigueur de 1857 à 1970) établit l'enseignement primaire et l'enseignement de la grammaire espagnole obligatoires dans toute l'Espagne. Toutefois, les institutions navarraises avaient défendu depuis des décennies l'enseignement en castillan obligatoire dans toutes les écoles.

